

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko ekainaren 22a
320. zenbakia. 23. urtea



Alkateak urtebete

Beñat Solaberrietak urtebete egin berri du Orioko Udaleko alkatearen karguan. Egindako lanaz eta herriaren egoeraz aritu gara berarekin hizketan.

05

Orioko kontuak
Turismo eskaintza

08

Kirolak
Oiana Blanco

11


Aiako kontuak
Andatzako eskola txikia

+

Erdiko gehigarria
Festa programak


IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz,
esamolde edota esaldiak biltzen ari gara.
Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com  #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berria jakingo da irabazlea).
Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.




GORENAK
EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK

WWW.SAGARDOGORENAK.COM

OINAK LURREAN TINKO,
KALITATEZ ETA INDARREZ,
DENAK NORABIDE BEREAN TIRAKA,
NAGUSI IZATEN JARRAITZEKO.
HORREGATIK DARAMATE SAGARDOEN
EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



Euskalerrriari

1

Gu, zazpi senide,
Ama baten besotan
zorionez azi
giñan lur maite ontan.
Ama, zu askotan
zaitut nik gogotan
da asi naiz bertsotan
atsegin osotan,
maitasun gozotan,
zu eskertu asmotan.

2

Zazpi senideok
alkartuko bagiña,
guk Amaren naia
gendukake egiña.
Amodio piña
zer gauz atsegiña,
berez datorren griña.
Gure maite-miña
beti da berdiña:
batu nai ta eziña.

3

O, Euskalerrria,
poli tez da ederrez
zu berdintzekorik
aurkitzen ez da errez.
Pozaren indarrez
goxo irriparrez
bazeundeke ezerrez;
sarritan negarrez
zaude zoritxarrez
penaz urtu bearrez.

4

Agur ta laztan bat,
Euskalerrria, zuri,
eta goraintziak
lagun maite batzuri.
N aigabe ugari
sortzen zaigu guri,
au garbi da agiri;
jaso biotz ori,
ez bera erori,
ez malkorik ixuri.

320

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Irati Agirreazaldeg

Erredakzio taldea

Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

Ale honetako

laguntzaileak
Ibon Arrizabalaga,
eta Ixabel Unsain

Laguntzaileak

Iñaki Iturain
eta Onintza Aiestaran

Diseinua

Danel Agirre Lertxundi

Banatzaileak

Cristina Burlacu
eta Iban Recio (Ori) /
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oriati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3200 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzten aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



A. OTAMENDI

PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Pat Cowierekin hitz egin
(695 780 720)
edo publizitatea@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Mila esker... guztioi

Duela sei urte saskibaloiko entrenatzaile hasi nintzen, eskola kirolean guraso, neska talde batekin. Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiot Fatimari, bide horretan hasteko animoak emateagatik.

Hain nenbilen gustura eta hain ilusioz beterik, gazteak jokatzeko jarraitzeko animatu nituen, eta nire laguntza izango zutela esan nien; eta halaxe hasi ginen lanean. Orion saskibaloiko talderik ez zegoenez, berriz izateko garaia heldu zela iruditu zitzaidan, horrela, neskek kirol egiteko beste aukera bat gehiago izan zezaten. Kirol honetan une oso onak bizi izan ditut gaztetan, Joakin Aranbururi esker, eta nire alabek aukera hori izatea nahi nuen.

Hori guztia nire atzean egon den jende askoren laguntzarik gabe ez litzateke posible izango. Orain, entrenatzeari utzi eta gazteei bidea uzteko momentua iritsi da. Baina, jakin, hor egongo naizela Orioko saskibaloari ahal dudana laguntza eskaintzen.

Eskerrak eman behar dizkiet senarrari eta alabei, haiekin pasa ezin izan dudana denbora, haiek aprobetxatu ahal izango duten proiektu honetan erabili dudala ulertzeagatik. Nire amaginarrebari eta aitaginarrebari, ez nengoenean haiek prest egoteagatik.

Orioko ikastolari, proiektua aurrera ateratzeagatik. Zarauzko Dani pazientzia duela adierazteagatik.

Nigan konfiantza izan duten haur horien gurasoei, nire eskuetatik pasa diren neskatxa horiei guztiei, ahaztuko ez nauten esperantzari; nik guztiak gogoan izango baitituz.

Eta, batez ere, nahiz eta azkenerako utzi, niretzat garrantzitsuena izan den pertsonarentzat, bera gabe hori guztia ezinezkoa litzatekeelako. Mila esker zuri, ama, bihotz-bihotzez nire ametsa egi bihurtzen laguntzeagatik.

Aupa Orioko saskibaloi taldeak!

■ **Ainhoa**

Irregulartasunak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2012ko maiatzaren 21eko datarekin, argitaratutako espedientea dela eta, Orioko dendari, ostalari eta profesionalen Arkupe elkarteak ondorengo adierazi nahi du:

Administrazio espedientea eta Eroski s.coop-ek aurkezturiko legeztatze proiektuak aztertu ondoren, EAEko In-gurumen 3/1998 legeko 58. artikulua

dioenaren arabera, ez gaude ados proiektu horren onarpenarekin.

- Gogorarazi nahi dugu Orioko arau subsidiarioak baliogabeta daudela. Gainera, arau horien egokitze plan orokorra indarrean ez dagoenez, handik etorritako lizentzia guztiak baliogabeak dira. Horregatik, jardueraren eta irekiera baimenaren aurka gaude.

- Ixarra kaleko 7. zenbakiko eraikina (Eroskiren lokala bertan kokatuta dago), legez, etxebizitza bakoitzeko lurrazpiko aparkaleku bat izatera behartuta dago. Legea betetze aldera, eta Eroskiren lokala handitze aldera, eraikitzaileak 7 aparkaleku eraiki ditu itsas-lehorreko jabari publikoko eremuan (salerosketarik egin ezin daitekeen lur eremu publikoa). Uste dugu Eroski aparkaleku horiek dagokien eremura mugatzerik behartu beharko litzatekeela; legeak hala eskatuta.

- Eroskik ustiatu eta kudeatuko duen lokalean itsas-lehorreko jabari publikoko eremuan daude: kamera eta lantegiak; sarrera, kutxen ilara; aldagelen zati bat; bulegoen zati bat; eta aparkalekue-tarako sarrera-aldapa.

- Indarrean dagoen Orioko arau subsidiarioen arautegi orokorraren arabera, merkataritza jarduerarako 1.000 m² baino handiagoko lokalek, lokal barruan bertan, legez dagozkien aparkalekuak izan behar dituzte. Lokal horrek halakorik ez duenez, futbol zelaiko aparkalekuak jasotzen dira garai hartako Orioko alkateak (Udalaren izenean) eta Muberrri SLko arduradunak 2011ko maiatzaren 20an sinatutako idatzian. Orioko Udala da, hain zuzen, bere araudia betetzen ez duena.

- 2010eko otsailaren 19an, Pilar Unzalu Perez de Ulate Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak aipatutako futbol zelaiko aparkalekuak, soilik herriko trafiko pila-keta arintzera bideratzeko baimena eman zuen. Nolatan arindu daiteke Orioko trafikoak Oriokoa ez den Muberrri SL enpresak 38 aparkaleku erosita?

- Nolatan egon liteke, jada 2006ko martxoaren 28an, 38 aparkalekuok erosteko salmenta-akordio bat Inmobiliaria Orio Txoko Txikirekin, oraindik 2009ko apirilaren 15ean, Uraren Euskal Agentziak Orioko Udalarari aparkaleku horiek egiteko baimena ukatu bazion?

Irregulartasun horiek guztiak ikusita, Orioko Udalarari aparkaleku horien saltzeko akordioa bertan behera uzteko exijitzen diogu. Eta arrazoi beragatik, baita Eroski s.coop-i irekiera eta jarduerak baimena bertan behera uzteko ere. ■

Arkupe Orioko dendari, ostalari eta profesionalen elkartea

Gaur arteko soka luzea

Urtebete-edo pasa da esan genuela urteetan KARKARA antolatzen aritu garenok lana utziko genuela, eta bat-batean errealitatearen aurrean aurkitzen naiz, malako eta guzti! Ez dakit Mirenek, Jabik eta Anak erabili dituzten *jurasiko* eta *dinosaurio* hitzak niri dagozkidan, beranduago hasi bainintzen KARKARAN, baina *lehenengo* taldeko sentitzen naiz. Berandu konturatu gara *Nire honetan* atal bakarra gelditzen zitzaigula uda aurreko atsedenaldira hartu baino lehen; beraz, gutunaren artean jarri behar izan dugu nire agurra.

KARKARAN sartu nintzen euskara galtzen ari nintzelako. Euskal Herrira etorri bezain pronto hasi nintzen euskara ikasten buru-belarri: urtebete Hondarribiko AEKn eta hurrengo bi urteetan Orioko euskaltegian. Baina ingeleseko akademia jarri nuen momentutik, gero eta euskara gutxiago erabiltzen ari nintzela konturatu nintzen. Herriko aldizkaria garrantzitu handiko proiektutzat nuen, eta euskararekiko nuen pasioa moteltzen ez zenez, erabaki nuen nire burua eskaintzea KARKARAN edozein lantxotan laguntzeko. Bada, beste guztia historia da, *jurasikoa, dinosaurioa...*

KARKARAN murgilduta izateak euskara nireganatzeko eta ni euskarara hurbiltzeko aukera eman dit, Aiako eta Orioko herritarrak ezagutzeko bidea, lantalde sendoan parte hartzeko esperientzia baliotsua, bertakoagoa sentitzeko aukera...

Eskerrik asko bidean lagundu nauzuen guztioi: errespetu eta pazientzia erakutsi didazue nire euskara behar zen mailara iristen ez zenean; oso ezezko gutxi jaso ditut informazioa edo elkarrizketa egiteko baimena eskatu dizuedanean; bete egin nau KARKARAN bisitakoak.

Zorte ona opa diet gaurtik aurrera ari tuko diren lagunei. Espero dut niri eman didan adina emango dizuela KARKARA egiten parte hartzeak. Batzuetan aipatzen da esker gutxiko lana izaten dela -eta hala iruditu zait, askotan-, bada, har ezazue, egileak zein irakurleak, *esker onez* honekin bidaltzen dizuedan baskada handia.

Zenbaki honetatik aurrera ez dut gehiago KARKARA hartuko jakinik zer aurkituko dudana. Sorpresa izango da, plazer bat, herriarekin lotura mantentzeko soka, euskaraz; hasiera-hasieratik izandako berbera. ■ **Pat**



Txu-txu trenaren erosi du Udalak eta aurtengo udan Anibarko Porturaino luzatuko du ibilbidea. KARKARA

Turismo eskaintza indartzen: uretako irteerak eta txu-txu trenaren

Orioko historia itsasontziz irteera kendu dute aurten eta, horren ordean, Oriko-Zarautz-Getaria-Oriko ibilbidea baporean egiteko aukera eskainiko dute. Hondartzako film emanaldiak ere izango dira.

Uda sasoiaren turistak hartzen dituen herria da Oriko eta kanpotik datozenentzat zein bertakoentzat hainbat aukera eskaintzen ditu turismo bulegoaren eta merkatarien elkartearen bidez.

Uztailaren 7, 17, 21 eta 28an, abuztuaren, 11, 18, 21 eta 25ean eta irailaren lehen, kayak irteerak izango dira; orduetara maren arabera izango da eta bi orduz ibiliko dira arraunean Oriko ibaiaren itsasadarrean. 12 urtetik gorakoek eman dezakete izena, eta igeri egiten jakitea beharrezkoa da. 12 eta 16 urte bitartekoek 7 euro ordaindu behar dute, eta gaitzakoek 13 euro.

Arraunean egiteko jarduerak ere eskaintzekoak ziren arraun elkartearekin elkarlanean, baina *Arraun eta Piragismo Teknifikazio Zentroko obrak luzatu egin dira eta iraila aurretik bukatuko ez dituztenez, pena handiarekin, baina jarduerak hori bertan behera utzi behar izan dugu*, esan digute turismo bulegotik.

Bestalde, itsasoan ibiltzeko aukera ere izango dute Oriko gerturatzen direnek. Batetik, Oriotik Donostiara joan-etorria egiteko, ekainaren 30ean, uztailaren 15 eta 31n eta abuztuaren 5ean eta 25ean. Bestetik, aurten beste eskaintza bat ere egingo dute, Oriko-Zarautz-Getaria-Oriko irteera, uztailaren 22an, abuztuaren 3an eta 17an eta irailaren 2an. Itsasontzi irteera horiek 17:00etan hasita izango dira. *Iaz, Orioko historia itsasontziz* egin zuten, baina aurten ez dute berriro eskainiko. *Iaz ez zen jende askorik animatu, baina espero dugu aurten eguraldiak laguntzea eta erria zein kostaldea beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera ez galtzea.*

Suak badiatik

Joan zen urtean Donostiako suak ikusteko itsasontziz egindako irteerak arrakasta izan zutela eta, aurten, Aste Nagusian ia gauero –abuztuaren 11tik 16ra– irtenko da Oriotik 21:45ean.

Irteeretan parte hartu nahi dutenek turismo bulegora deitu (943 83 55 65) edo joan (10:00- 14:00 eta 16:00 -20:00) informazioa jasotzera eta izena ematera. Gainera, hain izango dute eskuragarri eskualdeko bisiten inguruko liburuxka.

Urtero bezala, hondartzan zine emanaldiak ere egingo dituzte uztailaren 14an eta 30ean eta abuztuaren 4an eta 11n. Abuztuaren 4ko filma baino ez dute zehaztu oraingoz: *Gartxot* izango da egun horretan ikusiko dena.

Txu-txu trenaren

Bestalde, Orioko merkatariak eta ostalariek bultzatutako ekimenak azken urteetan arrakasta izan duela ikusita, Udalak txu-txu trenaren erosi du eta, hitzarmen bati esker, Arkupe Orioko dendari, ostalari eta profesionalen elkarteari utziko dio trenaren kudeaketa aurten. Herrigunea eta hondartza lotzeko zerbitzuaz arduratuko da merkatarien elkartea, eta bi oriotar arituko dira trenaren gidatzen.

Trenaren ibilbidea Anibarko Porturaino luzatuko dute, eta txartelak 0,60 euroan erosi ahal izango dira Olatun, Oditzen, Il Gelaton, Goxokin, Kaiuan eta kanpinean.

Udako kirol-kanpainarako izena emateko epea zabalik dago Karelan

Uztailean eta abuztuan izango dira haur, gazte eta helduentzako kirol ekintzak. Bestalde, ekainaren 23an, belaunaldien arteko kirol egunean, saskibalo partidak, ibilaldia eta aerobik saioa izango dira.

Urteroko bideari jarraituz, aurten ere Udako kirol kanpaina jarri dute abian uztaileko eta abuzturako kiroldegian. Udako hainbat kirol nolakoak diren ezagutaraztea eta horietan aritzea da helburu nagusia eta, era berean, aisialdirako aukerak eskaintzea. Beraz, ez da beharrezkoa trebatua izatea eta lehia ez da inola ere kirol saioen asmoa. Ikastaroak irekiak dira eta aurreko urteetan parte

hartze ona –300 lagun gutxi gorabehera– izan delakontuan hartuta, aurten ere hala izatea espero dute antolatzaileek. Izena emateko Karela kiroldegira jo behar da eta orduan ordaindu. Haur eta gaztetxoek hamabostaldi bakoitzeko 28 euro; helduek, aerobik saioengatik, 20 euro hilabeteko; spinning, pilates edo fisio osasunerako 35 euro hilabeteko eta, gainontzeko kirolean, hamabostaldia

35 euro. Edadetuentsat ere egongo dira kirol saio bereziak, eta horiek 3 euro ordaindu beharko dituzte hilabetean.

Txikienentzat, 3 eta 6 urte artekoentzat, igeriketa saioak izango dira goizetan. 6 eta 9 urte bitartekoek aukera zabalagoa izango dute: jolasak, eskulanak, tenisa, softbola, saskibaloia, padela, dantza, igeriketa eta futbola. 10 urtetik gorakoek, aurrekoek gain, surferako, patinetan ibiltzeko eta arraunketarako aukera ere izango dute. Goiz eta arratsaldean izango dira saioak jardueraren arabera.

Kirola egin nahi duten helduentzat ere aukera zabalagoa izango da: aerobika, *spinninga*, pilates, surfa, padela, patinak eta fisio osasuna. Gainera, adinduek ere izango dute kirolerako aukera.

Ordu egien berri eta informazio gehiago nahi dutenek kiroldegian jaso dezakete.

Belaunaldi arteko kirol saioak

Bestalde, ekainaren 23rako, larunbaterako, belaunaldi arteko kirol eguna antolatu du Ingemak –Matia institutu gerontologikoak– Orioko herriarekin batera. 10:30ean saskibalo partidak izango dira kiroldegian; ondoren, ibilaldi erraz bat egingo dute kiroldegi eta futbol zelai inguruan eta, azkenik, adin guztietara egokitutako aerobik saioa izango da Karelan. Helburua da ume, gazte zein heldu, guztiek parte hartzea elkarrekin.

Udaleku irekiak

Aisialdirako beste aukerarik ere izango da udan. 210 umek eman du izena aurten uztailearen 2an, Txurrunuskik antolatutako udaleku irekietan.



Helduentzako padel ikastaroak izango dira Muntoko kirol eremuan. KARKARA

LABUR

Kultur Etxea Udako ordutegia

Uda sasoi delako eta Kultur Etxeko ordutegia moldatu egingo dute. Ekainaren 25etik uztailearen 30era bitartean, goizez baino ez da irekita egongo: 09:00etatik 13:00etara. Abuztuan, berriz, ateak itxiko ditu eta, irailaren 3tik 7ra ere uztaileko ordutegi bera izango du. Bestalde, liburutegia ere, ohiko ordutegian ez bezala, goizez egongo da zabalik uztailean eta iraileko lehen astean.

Ibilgailuak

Ziklomotoreen azterketa teknikoa

Herriko ziklomotoreen azterketa teknikoa egin ahal izango da Orion bertan, uztailearen 2an eta 5ean, 09:00etatik 14:45era bitartean. Horretarako, ordea, aldeztu aurretik txanda hartu beharko dute, Irungo IATra deituta: 943626300. Azterketa Herriko Plazan izango da, eta ziklomotorearen dokumentazioa eraman beharko dute jabeek. Bestalde, udaltzaingorak gogorarazi nahi du derrigorrezkoa dela motoei azterketa teknikoa egitea, eta laster kontrolak egingo dituztela, egi-na duten ala ez jakiteko.

Festak

Sorgin gaua San Joan bezperan

Larunbata, ekainaren 23a, San Joan bezpera da, barruko txar guztiak kanporatu eta sutan erretzeko eguna. Egunez baino gaez egiten da festa suaren bueltan eta, ohiturari jarraituz, Orion ere Sorgin Gaua antolatu dute larunbaterako. 21:30ean Kosta tailerretik abiatuta herriko kaleetan ibiliko dira kalejiran sorginak jendea festara gertura dadin gonbidatuz. Ondoren, 22:30ak aldera, dantza emanaldia izango da Harribil dantza taldearen eskutik, Ikastola aurreko plazan piztuko duten suaren inguruan.

Udaleku irekiak antolatu dituzte 3 urteko haur guztiei zuzenduta

Txurumuskiren eskaintzatik kanpo geratzen diren haurrei irtenbidea emateko antolatuko dira aurtten, lehen aldiz.

Orain arte Txurumuskik antolatu ditu beti udaleku irekiak, baina udalekuak hasten diren momentuan umeei 3 urte beteta izatea da baldintza.

Hori dela eta, hiru urte bete gabe dituzten haurren gurasoek askotan eskatu izan dute irtenbideren bat beren arazoarentzat.

Miriam Uranga zinegotziak adierazi duenez, *familia askok arazoak zituzten kontu horrekin eta 20-25 familiarik konponbidea ematen zaie modu honetara. Txurumuskirekin jarri ginen harremanetan; baina haiek esan ziguten hiru urte-tik beherako haurrekin egin beharreko lana ez dela aisialdiaren esparrukoa. Horren aurrean, aurtten Ikastolak erraztu digu bidea eta berak antolatu du. Eskertzekoa da izan duten jarrera. Datorren urtean, ordea, Udalak prestatu behariko ditu udaleku ireki horiek.*

Txurumuskiren erantzuna jakin zu-

tenean, ikastolak bere gain hartu zuen ardura. Ikastolak egingo ditu: langileen kontratazioa; haurren izen-ematea eta diru-sarreraren kontrola; instalazioak eta materiala jartzea; aseguruaren kontratazioa; eta garbiketa. Orioko Udalak, bere aldetik, jarduerak sor dezakeen diru galera konpentsatuko du.

Izena ematea

Udalekuetan izena emateko orria, Orioko Ikastolaren webgunetik deskarga daiteke: www.oriokoikastola.net. Txurumuskirekin aurretik izena emanda dutenek ere, 3 urte beteta dituztenek, aukera izango dute udaleku ireki hauetan izena emateko, betiere 85 euroko matrikula ordainduta eta Txurumuskik dirurik ez diela itzuliko jakinda. Izena ematen dutenekin informazio bilera egingo da ekainaren 26an, 18:00etan, Ikastolako Haur Hezkuntzako 2. mailako gelan.



HH2ko umeentzat aukera berria dago. KARKARA

Esklerosia dutenen aldeko kanpaina

Busti Zaitetz lelopean esklerosi anizkoitza duten pertsonetikiko elkartasuna adierazteko ekintza egingo dute. Orion, Herriko Plazan elkartzeko dira eta ahalik eta gehienengana iristea da asmoa.



Kamisetak salgai jarriko dituzte elkarteari laguntzeko dirua lortzeko. ESTIBALIZ ETXEBERRIA

Esklerosi anizkoitza nerbio sistema zentralaren gaixotasuna da. Ezintasuna ekar dezake eta, normalean, progresiboa da. Gaixotasun horrek arazo fisikoak, emozionalak eta arazo sozial zein lanekoak eragin ditzake. Adituek ez dakite jatorria zein den eta, beraz, gaixotasun sendaezina da eta gaitza bera ere ez da hain ezaguna.

Hori da, hain zuzen ere, *Busti Zaitetz* lelopean urtero egin ohi duten kanpainaren helburua: esklerosi anizkoitza ezagutzera ematea eta gizartea sentsibilizatzea. Era berean, gaixotasuna dutenei errehabilitazio zerbitzuak finantzatzeko diru-laguntzak lortzeko ere egiten dute kanpaina; izan ere, laguntzak izan arren, zerbitzu hori gaixoei berek ordaintzen dute.

Uztailaren lehen izango da *Busti Zaitetz* hitzordua Orion, 10:30etik 15:00etara bitartean Herriko Plazan. Esklerosi anizkoitzari buruzko informazioa emateaz gain, Kukuxumusuk diseinatutako kamisetak salduko dituzte 12 euroan, baita eltzetsua diru bilketa egin ere.

Bestalde, Gabonetan, loteria saltzen dute elkarteko kideek eta lortutako diruaren zati bat gaixotasunaren jatorria eta sendabideak ikertzeko izaten da.



J. C. USURBIL

“Domina bat lortzea da gure helburua, oso zaila dela dakidan arren”

Oiana Blanco Etxeberria

Judo borrokalari olinpiarra

Olinpiar Jokoetara iritsi den kirolari oriotar bat baino gehiago izan da; gehienak arraunean. Baina Londresen beste kirol batean lehiatuko da oriotar bat: judoan. Arraunean arituko da, akaso, De Anta; baina deiaren zain dago.

IKER GURRUTXAGA

Olinpiar Jokoak, kirolari askorentzat, kirol-bizitzan lortu daitekeen helburu gorenaren dira. Aurten, Oiana Blanco Londresen izango da, lortutako txartela eskuan duela. Edorta de Anta Orio Arraunketa Elkarteko arraunlariak ere lortu zuen txartela Paralinpiar Jokoetarako. Baina hark oraindik ez daki lortutakoaz gozatzeko aukera izango duen. Txartela Espainiako Arraun Federazioaren eskuetan dago eta De Antaren eta beste arraunlari asturiar baten artean dago lehia. Guk bi kirolari oriotarrei egon nahi

genien elkarriketa, baina Edortak, Londresen izango den ala ez oraindik ziurtatuta ez duenez, nahiago izan du beste baterako utzi.

Gauzak horrela, Oiana Blancorekin bizi duen egoeraz eta Londresko Olinpiar Jokoetan espero duenez jardun gara hizketan.

Txartela lortu arteko bidea gogorra izan al da?

Bai. Urte asko izan dira eta lanean gogor aritu beharra dago beti. Hala ere, gustura aritu naiz eta gustuko izan dudana egin dut beti.

Olinpiar Jokoetarako txartela lortu zenuen unea nola gogoratzen duzu?

Momentuan ez nekien txartela lortu nuenik. Etxera bueltatzean, eta hiru edo lau aldiz galdetu ondoren, ohartu nintzen nirea zela. Egia esan, oso-oso gustura eta pozik nago. Ikaragarria da!

Biharamunetik hasiko zinen prestaketa berezia egiten, ezta?

Hala da, bai. Txartela lortu eta bost egun lasaiago ibili nintzen, ondoren zetorkidan lan gogorrari gogotsu eta indar berrituta ekiteko.

Eta entrenatzaileak zer dio?

Harentzat ere oso garrantzitsua da. Lehen aldiz izango du kirolari bat Olinpiar Joko batzuetan eta erronka berria eta landua izan da.

Urduritasunik sentitzen al duzu?

Oraingoz, lasai nago. Entrenatu eta entrenatu, besterik ez dut egiten, eta ez dut denbora gehiegirik etorkizunean pentsatzeko. Hala ere, eguna gerturatu ahal, ikusiko dugu nola nagoen...

Zein egunetan tokatzen zaizu Londresen konpetitzea?

Jokoetako lehen egunean hartuko dut parte. Irekiera ekitaldia uztailearen 27an izango da eta nik 28an izango dut lehen borroka.

Zer egiten duzu egun normal batean?

Lehen esan dudanez, entrenatu besterik ez dut egiten. Goizean, 8etarako, entrenatzera joaten naiz eta fisikoa lantzen dugu saio horretan. Bukatu ondoren, psikologoarekin egoten naiz alderdi hori ere lantzeko eta, konturatzera, bazkaldua iritsi da. Bazkalduta ondoren, lo-

kuluxka egin eta arratsaldetan, hurrekin klasea baldin badut, ordubete inguru egoten naiz berekin eta, ondoren, entrenatzera berriz. Haurrekin klaserik ez badut, entrenatzera joan arte lasaiago egoten naiz. Saio horretan judoan aritzen naiz; besteak beste, alderdi teknikoa, taktikoa eta fisikoa lantzen ditugu.

Jendearen babesa ere sentituko duzu, jakina.

Bai. Aurten, Olinpiar Jokoak izanda, albiste gehiago dago eta jende guztiak jarraitzen ditu nire nondik norakoak. Gainera, herri txikikoa izateak ere eragina badu horretan eta guztien babesa gertuago sentitzen da horrelakoetan.

Hala ere, Espainiaren izenean joateagatik kritikaren bat edo beste eroriko zen tartean...

Dagoeneko, ez. Gazteagoa nintzenez bat edo beste entzun izan nituen, baina nire helburua lortzeko bide bakarra bukaera arte jarraitzea dela argi izan dut beti. Oso burugogorra naiz eta, nire helburuak lortzeko, lagungarri izan zait hori.

Oriko bandera bat ere eramango duzu mailetan, ezta?

Bai, jakina. Kultur Etxean izandako mahainguruan emandakoa Londresera joango da eta etxetik doazenen ardura izango da hura bertan zabaldu eta astintzea, txapelketa egunean ni ez bainaiz ohartu ere egingo.

Zer helburu jarri diozu zure buruari Londrerako?

Domina bat lortzea da gure helburua. Oso zaila da, badakit! Baina maila onean nagoela erakutsi dut eta, nire partetik, ahal dudan guztia egiten ari naiz hori horrela izan dadin. Uztailaren 28an ikusiko da zer gertatzen den eta, emaitza alde batera utzita, ahal izan dudan guztia egin izanaren eta egindakoarekin disfrutatzea da niretzat garrantzitsua. Ez bada ateratzen, ez dadila izan zerbait egin ez dudalako. Horrelako aukerak ez dira pasatzen utzi behar.

Ingelesaren praktikan jarri al duzu aspaldian? Zer moduz moldatzen zara hizkuntza horrekin?

Ingelesarekin ez naiz oso abila; moldatzen naiz eta kanpora joaten naizenetan zerbait –oso gutxi– hitz egiten dut. Baina lasai, zeinu hizkuntza mundu osoan da ezaguna.

Zurekin lagun bat baino gehiago ere izango da Londresen, ezta?

Bai, noski. Aita Ergobitik ateratzea lortuko dut! Urrutien Madrilera joan da ni ikustera. Ama eta ahizpa Parisen izan ziren joan den otsailean eta, haiekin batera, koinatua eta hiru ilobak ere han izango dira. Mutil laguna, berriz, askotan izan da kanpoan ni ikusten eta, orain ere,

bai, jakina; eta haren ama ere animatu da. Beraz, hasieratik bultzatu eta lagundu nauten guztiei hango bizipenik ederrinak eskaintzeko aukera paregabea izango dut.

Entrenatzaile Esteban eta tatamikide Ibai Peña oriotarra ere han izango dira. Gu klubean entrenatzen gara eta, hautatzailearen laguntza izanda ere, entrenatzailearena oso garrantzitsua da horrelako txapelketa batean.

“Oraingoz, lasai nago. Entrenatu eta entrenatu, besterik ez dut egiten eta ez dut denbora gehiegirik etorkizunean pentsatzeko”

“Ingelesarekin ez naiz oso abila, eta kanpora joaten naizenetan zerbait hitz egiten dut. Baina, lasai, zeinu hizkuntza mundu osoan da ezaguna”

Baina orain arte bidelagunik ez zaizu falta izan.

Aipatu dudan bezala, badira, bai, nirekin askotan etorri direnak hara eta hona egindako bidaietan: entrenatzailea, Aitzol bikotekidea, Ibai... 2009. urteko mundialera ere klubetik dezente joan ziren eta baita iazko mundialera ere: gurasoak, ahizpa... Azkenean, jende asko mugitu da eta eskerrak eman behar dizkiet guztiagatik.



J. C. USURBIL

LABUR

Sofbola Bigarren ligan

Kirolgi OBBko neskek bukatu dute liga erregularra eta bigarren geratu dira bost taldeko ligan. Viladecans baino ez dute izan aurretik oriotarrek, baina puntu bakarreko alde izan dute azkenean. Uztailaren 14an eta 15ean Mendibeltz zelaian jokatu dute Erreginaren Kopa, Espainiako federazioaren egutegiko azkenena. Bestalde, juniorrek Gaván -Bartzelona- jokatu dute Espainiako txapelketa ekainaren 22tik 24ra bitartean.

Arrauna Euskadiko aulki mugikorrek txapelketa 10 domina

Emaitza onak lortu dituzte Orio Arraunketa Elkarteko arraunlariek Euskadiko aulki mugikorrek txapelketan. Legutition jokatu ziren estropadak ekainaren 17an eta 10 domina eskuratuta itzuli ziren. Urrezko lau domina lortu zituzten: gizonezko beteranoetan, skiffean; gizonezko infantiletan, skull bikoitzean; gizonezko jubeniletan, lemazaindun laukoan; eta gizonezko seniorretan, lemazain gabeko laukoan. Zilarrezkoak beste lau domina izan ziren: gizonezko beteranoetan, skiffean; emakumezko infantiletan, lauko skullean; gizonezko kadeteetan, zortzikoan; eta gizonezko jubeniletan, lemazain gabeko laukoan. Azkenik, bi brontzezko domina ere lortu zituzten: emakumezko kadeteetan, lauko skullean; eta gizonezko kadeteetan, lemazain gabeko laukoan.

Traineruak denboraldirako prest

Test moduko estropada guztiak bukatuta, traineruak prest daude 2012ko arraun denboraldia hasteko. Azken estropada Alkozko -Nafarroa- urtegiaren Aritzaleku kanpinak antolatu zuen. Gipuzkoako ontziak lehiatu ziren han, nesketan eta mutiletan. Neskek bigarren izan ziren, eta irabazle izan zen San Juango traineruak 16 segundo atera zizkien. Gizonezkoetan, hirugarren izan zen Orioko lehen ontzia eta bosgarren izan zen Orio B. Sanpedrotarra izan zen estropadan irabazle, bigarren izan zen Hondarribiari segundo bakarreko alde aterata. Oriok 8 segundo gehiago behar izan zituen eta bigarren txalupak 35 gehiago. Ekainaren 23an eta 24an hasiko dituzte ligak: Luancon, Orio Bk, 23an; eta Mirotzak, Elantxoben, 24an. Neskek Orion jokatu dute, uztailaren 1ean.



KARKARA

“Izaeraz positiboa naiz eta pertsonaiei umorea transmitzen saiatu naiz”

Xabier Etxeberria

Idazlea

Aian bizi den idazle zarauztarra da Xabier Etxeberria. Martin anaia bikiarekin batera haur zein helduentzako hainbat liburu idatzi ondoren, bakarka, harremani buruzko *Udazkeneko loreak* nobela kaleratu du; arin irakurtzeko moduko liburua.

IRATTAGIRREAZALDEGI

Zarauztarra. Aia eta Orioko muga bizi da, Aiako lurretan, baina Santioko frontoia eta Orioko plaza etxetik distantzia berera dituela dio. Bizilekuak, ordea, ez du gure artera ekarri, idazle den aldetik kaleratu duen eleberririk baizik.

Bakarka lan batzuk egin dituzu, baina beste asko anaiarekin.

Anai-arrebok idazteko zaletasuna izan dugu beti. Lehen nobela orain dela 11

urte egin nuen, gero haur literaturako hainbat lan anaiarekin, eta helduentzako bosgarren nobela da hau, bakarka egin dudana bigarrena (beste hirurak anaiarekin egin ditut). Oso sintonia ona dugu, eta lanak elkarrekin nola egin erabakiz gero, ez dauka misteriorik. Gainera, erdibana egindako lana denez, idaztea errazagoa da. Beste nobela batekin ari gara anaia eta biok orain. Ondo pasatzen dugu elkarrekin, barre asko egin dugu. Gainontzean, etxean ordenagailuan idazten dut. Lehengoan, garai bate-

ko koaderno bat aurkitu nuen. Lehen nobela hala idatzi nuen, eta gero dena ordenagailura pasa, orduan ez bainek ordenagailurik. Egunean buruan bueltaka izan dezaket idazten ari naizen kapitulua eta kalean paseatzen ari naizenean ideia batzuk hartzen ditut.

Udazkeneko Lorea eleberria kaleratu duzu. Zein da liburuaren ardatza?

Harremani buruzko nobela da. Hiru istorio daude: bikote harreman bat; edadeko amaren eta hura zaintzen duen alabaren artekoa; eta bi ahizpen artekoa. Banaka edo bata bestearekin tartekatuz irakur daitezke. Ipuin bateko pertsonaiak bestean ere agertzen dira, eta bat bestearen informazioa ematen duenez, osotasuna hobeto ulertzen da. Sekretuak eta gezurrak ere badaude, batean esan ez eta bestean jaso direnak.

Gertuko harremanak baliatzen dira horrelakoetan ideiak sortzeko?

Nonbait zerbait ikusi edo niri zerbait gertatuz gero, buruan gelditzen zait. Liburuko gauza batzuk biografikoak dira, eta badaude besteei gertatuak ere. Errealitatetik abiatu arren, nik aldatzen ditut.

Sekretuak ere badaude.

%100 zintzotasuna harremanetan ez da ona, sekretutxoak edukitzea normala da. Gauza batzuk isildu egiten dira, hobe beharrez edo maliziaz.

Sekretu batzuk gorde dituzu?

Hasierako zirriborroan, laugarren ipuin bat zegoen, baina ez zen ongi lotzen gainontzekoekin; beraz, beharbada aurrerago zerbaiterako balio dezake.

Udazkeneko lorea da izenburua.

Izenburuari buelta asko eman dizkiot. Hasieran, hiru harreman zirela kontuan hartuta, *Triangulo eskalenoak* jartzea pentsatu nuen. Gero, pertsonaia batek, ipuin batean, *pentsamendua udazkeneko lorea da* entzuten du. 40 urteren bueltan, gogoeta momentuan dagoenez, pentsarazi egiten dio: hortik izenburua. Pertsonaiei zerbait pasa zaie iraganean eta gainditu beharra dute. Ni izaeraz naiz positiboa, umoreari eusten eta aurrera begiratzen saiatzeko naiz eta pertsonaiei ere hori transmititu diet. Bukerana aurrera begira jartzen dira denak. Eleberrian ironia sartu dut, istorio batean, nire *alter egoa* denean, gehiago; besteek dramatismo puntua daukate.

Aurrera begira zer asmo duzu?

Anaiarekin batera ari naiz beste nobela bat idazten. Lehen urtea hitz egiten, pertsonaiak, argumentua, tonua... pentsatzen pasatzen dugu eta ondoren hasten gara idazten; lehen fasean gaude, baina presarik gabe ari gara.

Zabalik izango da hurrengo ikasturtean ere Andatzako eskola

2012-2013 ikasturtean, 14 ikasle izango dira Andatzako eskola txikian. Baina 2013-2014 ikasturterako itxi egingo dutela jakinarazi du Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak.

Andatza auzoko eskola txikiko umeen gurasoak kezka bizian izan dira duela gutxira arte. Izan ere, ikasturte amaiera gertu zegoen, eta ez zekiten hurrengo irailean umeak auzoko eskolara eramaterik izango zituzten. Eskolan ikasle gutxi zeudela eta, Hezkuntza Sailak eskola ixteko asmoa azaldu zuen; baina, oraingoz, beste ikasturte bat gehiago atek zabalik izango ditu Andatzako eskolak. Hala jakinarazi du Hezkuntza Saileko Gipuzkoako ordezkarik Julen Bengoetxeak: *Irailean hasiko den ikasturtean irekita utziko dugu, baina hurrengoan, 2013-2014an, ixtea da hartu dugun erabakia*. Albiste horrekin pozik agertu dira Andatzako gurasoak: *Guretzat berri ona da. Guk ez dugu eskola ixterik nahi, eta horregatik joan ginen delegaziora*, esan du Maribi Kerejeta gurasoen ordezkaririk.

Eskola ixteko eman dieten arrazoia matrikula kopuru txikia eta murrizketak izan dira. *Urtetik urtera ikasle gutxiago dago, baina ikasle kopurua txikiagoa izan arren, irakasleena bera da, bakoitzak bere espezializazioko gaiak irakasten dituelako eta horrek kostu handia du*, dio Maribi Kerejetak. Orain, behin betiko hiru irakasle daude, eta lekualdatze lehiaketaren ondoren ikastetxez aldatuko dira bi; beraz, behin-behineko egoeraren dauden beste batzuek hartuko dute horien lekua eta gero, gai batzuetarako, irakasle berezituak joango dira.

Garraioa eta jangela bermatuta

Datorren ikasturtean 14 ikasle izango direla jakinarazi digute delegazioan, eta horietatik 4 Oriokoak direla. *Orion badaukate eskola publikoaren zein ikastolaren aukera; beraz, horietakoren batera joan daitezela. Izan ere, berez, hala dago-kie. Aiara joan nahi izanez gero, haiena da aukera, baina garraioa ez zaie bermatuko. Gainera, Aiako eskolan ere lepo daude eta ez dut uste onartuko dituztenik*, izan da Julen Bengoetxearen azalpena. Delegatuak berak jakinarazi du Andatzako eskola itxitakoan, aukera emango dietela ikasleei Aiako Lardizabal ikastetxera joateko eta garraio eta jangela-zerbitzua izango dituztela bermatu du. Guraso ba-



Haurrak eta irakasleak Andatzako eskolako gela batean. KARKARA

tzuek esan dutenez, *haurrak Aiara eraman beharrean, Oriara eramango ditugu*, baina hori bere esku ez dagoela adierazi du Julen Bengoetxeak.

Haurrak eskolaz aldatu beharra gurasoentzat erosotasuna galtzea dela esan du Maribi Kerejetak, *batez ere ume txiki-ekin*. Bestalde, *auzoa hilda geldituko litzatekeela uste du. Andatzak bizitza pila bat galduko luke, umeek asko alaitzen baitute astelehenetik ostiralera jolas garaian edo eskolatik ateratakoan: umeak dauden bitartean bizitasun hori nabaritzen da*.

Andatzan, haur gutxi izanik bi edo hiru mailatako haurrak elkarrekin egoten dira, baina gero banatu egiten dira gai zehatzetarako

Gelan jende gehiago

Hemendik bi ikasturtera beste eskola batera joan, eta geletan haur gehiago izateari ere ez dio abantailarik ikusten gura-

so honek: *Hemen, irakasleek badakite ume bakoitzak non duen hutsunea eta non egin behar duen lan gehien. Eskola handietan, gutxi gorabeherako bat esango dute. Ez daukagu horrelakorik, gurea sekulako pagotxa da*.

Ikasgeletan elkarrekin

Andatzan, haur gutxi izanik, bi edo hiru mailatako haurrak elkarrekin egoten dira, baina gero banatu egiten dira gai zehatzetarako. *Onuragarria da, asko ikasten dute beren arteko elkarbizitzaz, errespetuz, jolasez... Hori oso aberasgarria da haientzat; txiki-ekin handiena entzun eta jasotzen dute; eta, alderantziz, handiek txiki-ekin partekatzen ikasten dute eta ez baztertzen*.

Gurasoak, beraz, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak hartutako erabakiarekin –datorren ikasturtean eskola zabalik izatearekin– konforme egon arren, Andatzako eskola zabalik izatea nahi lukete aurrerantzean ere, eta hori da eskatuko dutena: eskola ez ixtea.

Ospa!



spa egin behar omen dute. Bueltatuko direla, baina... Ospa. Hala diote. Beno. Bada zer egin bitartean! Hemen dator San Joan

Eguna, Euskal Herrian atzokoa eta gaurkoa bereiziko dituen eguna; bezperan sua piztu, hurrengo goizean Iturriotzera, ume, gizon-emakume, lore, etxafuero, kirol eta bertso.

Pedro Deuna, gure giltzeroa, bapo egongo da jendea hartzeko zain, *Pedro zeraaa...* kantatu, kirol eta festa egin aspertu gabe, eta etxekoentzat erroskilak erosi.

Aiatik Arantzazurako bidea pausoz pauso jo, Santiyo bezperan Unai eta bertsolarietara joan aurretik bapo-bapo afaldu, hurrengo egunean zaindaria

Santiagoren eguna ospatu, auzoko ermitatxoan, nola ez.

Azpeitiyen Saninaziyotan txanpain pixka bat edan eta urdaiazpikoren bat honuntza ekarri.

Sandonatotan meza entzun, karroza eta su-artifizialak ikusi, Gaztelubidekoak agurtu *Festara, festara...!* nola kantatzen duten entzunez...

Labadora jarri, otordua prestatu, etxea eta gainontzekoak... umeak kaletik erretiratu ezinik zenbat harmonia... *Demonio*ssss! Realaren aurre-denboraldia-ri erreparatu, Athletic seguru ondo dabilela, Aitzpeako kalera bisitak egin, Ernioko gurutze ondoan haizeak nondik jotzen duen tankera eman, Zelatungo zelaian dantzatu... Zarauzko euskal festetan kalejiran bira eta bira, *Euskalerri*

nerea ezin zaitut maite edo... *zenbat maite zaitudan!*

– *Donostiako 'trapua' Oriyok?* Aurten San Joanek, igoal.

Perretxikoekin kontuz, *Amanita phalloides* paseora irteteko garaia iritsi da, bereakegin nahiko ditu...

Samieletan topo bateragunean, umore ederrez hamaiketako egin, aldarreak neurtuz: *txakolin txiñ-txiñ, hau bai hau bizi fiñ...*

Zenbat desio, ilusio, ahalegin, begirada, festa, min, gaixoaldi gatibu, gazi, gozo, gose, egarri, lan, hotz, bero, etekin, irri eta malko, indar eta kemen...

Eta garotako amabirjina ate joka. Eta orduantxe bueltan gure jendea.

Oraingoz honela dio abixuak: *Oporraldiagatik itxita.* –KARKARA.



Txokoak eta jendea Badator uda

...eta horrekin, eskola liburuak alde batera utzita, udak eskaintzen dituen gauzez gozatzeko unea. Orain dela 10 bat urteko argazkian, kaskoko umeak mendian gustura daudela ikus daiteke: Mikel, Iban, Maialen, Iñigo, Manex, Maddi, Eli, Miriam, Ane, Mirari, Ane, Maren, Iban, Julen, Martxel, Jon Ander, Xabi... Uda ona pasal!

agirresarobe
 PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
 ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
 FATXADEN ERABERRITZEAK ■
 ISOBAILUEN PROIEKTUAK ■
 GRENIO KOORDINAKUNTZA ■
 INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, S. BULEGDA, ZARAUTZ
 BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTUA 635 731722

 **AKOBE ACTIVA**
JUAN ALBIZU

Etxetresna elektrikoak
 sukaldeko altzariak

Abeslari, 6 - 20810 ORIO
 Tel/Fax: 943 83 12 45 - albizu@activahogar.com

 **Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 6
 TEL: 943 83 47 04
 FAX: 943 13 09 38
 orio@ikastola.net
 www.oriokoikastola.net

Alustiza Autobusak
Bidaia eta Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 06 80. Mugikorra: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

uranga
 autozerbitzua

 **Aliprox**

Eusko Gudari Kalea, 13-15
 ORIO
 943 83 10 75

 **Azkue**

Tf: 943 13 04 38

Allianz 

Marigre Zaldua
 aseguru agentea

Eusko Gudari, 10 bisita-oina
 telefonoa: 943 13 47 90
 fax: 943 13 07 52
 e-maila: zaldua.dolores.pa@allianz.es

Kinokladenda - Uwe arropa

argine

www.lasonet.com/argine
 Tel. 943 13 46 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARREN TXARTELAREKIN

calavitegia
ANTILLA
jaletegia

Alustiza Kalea, 12 - TEL: 943 13 21 00

 **AIRDATA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

ARISTERRAZU
 jatetxea

Andatza auzoa - AIA
 Tel. 943 83 45 21

ARKAITZ
 Taberna

Pintxoak,
 plater konbinatuak
 eta ogiarietako mundialak

MIRSLARI KALEAN TEL: 943 83 16 57

Automóviles ZARAUTZ

ENTRENZETREKORRIALAN

ZARAUTZ, TEL. 943 13 13 50

azkue
 karrozeria

Ubagun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
 Tlfax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualdeko banatzailea
 Zudugarai, Getariako txakolina
 Ilagares, ardo gorri nafarra
 Bodegas Gailur: Señorio de Larrayain
 Gailur eta Arcandegi
 Arambar Ertiozako ardoak

Eusko Gudari 46 0910 • 943 83 03 88 / 83 50 52 • E-maila: bodegaserrasti@azkue.net

“Herritarra udaletxera gerturatzen saiatu gara”

Beñat Solaberrieta Albizu

Orioko alkatea

Ekainaren 11n bete zen urtea Orioko alkate makila eskuz aldatu zela. Jon Redondoren eskutik jaso zuen **Beñat Solaberrieta Albizu alkate** berriak herriko agintea. Urtemuga bete den honetan berarekin izan gara, alkate denetik bere bizimodua, Udalarena eta herriarena nola aldatu diren jakiteko.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IRATI AGIRREAZALDEGI

Urtebete baizik ez da pasatu Bildu eta Orainen botoei esker Beñat Solaberrietak alkate kargu hartu zuenetik. Denbora tarte horretan izan du zereginik, udaletxean ez ezik, herriko kaleetan, Jaurilaritza edo Aldundiko administrazioko

bulegoetan, beste hainbat erakunderen egoitzetan... eta batez ere, herritarren artean. Izan ere, hitz bat nabarmendu du alkateak lehen urte honi buruz galdetu diogunean: lana. Horrez gain, azpimarratu du Udalaren aldaketetako bat partaidetza izan dela; alegia, herritarrek gehiago eta gehiagotan parte hartzen dutela orain eta horri garrantzia eman nahi

diotela agintaldi honetan. Horretaz eta herriko proiektuez aritu gara, besteak beste.

Urtebete alkate. Labur-labur egiguzu urte honetako balorazioa.

Hasieran, kokatzeko lana egin dugu. Udalak nola funtzionatzen duen ezagutzeko lana *expresan* eta *turbo* dezente sartuz egin dugu, martxan ziren proiektu-



tuen berri teknikarien bidez bakarrik jakin dugulako; eskatu arren, alkatetik alkaterra ez da informazio trukerik egon. Hortaz, hasiera nahiko aldapatsua eta gogorra izan da. Orokorrean, hala ere, balorazioa positiboa da. Hitz bakarrean laburbildu beharko banu: lana.

Eta alkatetzak zer eragin izan du zure bizitza pertsonalean?

Nik esaten nuen, alkate izan arren, ez zela aldaketarik izango; baina aitortu behar dut batzuk izan direla. Hala ere, oso kalekoa naiz eta lehengo gauza berak egiten jarraitu dut: lagunekin kafea edo trago bat hartu, kanpoan afaldu edo bazkaldu lehengo tokietan, Orion. Aldatu dena, beharbada, kalean izaten ditudan elkarrizketak dira, beti Udaleko gaietara bideratzen dira-eta. Kalean egoten naitenez, galderak eta proposamenak egiten dizkirate ingurukoek eta beste herritarrek.

Lanean ere aldaketa izan dut: Hezkide eskolan ari nintzen gazteen astialdiko formazio arduradun, eta utzi egin behar izan dut.

Denbora libre gutxiago dut; baina, hala ere, betiko ohiturei eutsi diet: lagunekin bidaiak egin, asteburu pasa norabait joan, hondartzan arratsaldea pasatu...

Pertsonalki aldaketak ekarri dizkizu zuri, baina alkate berria izateak herriari ere ekarriko zizkion aldaketak, ezta?

Bai, noski. Parte-hartzearena, batez ere. Parte hartzeko argumentua erabili genuen hauteskunde kanpainan eta beti esan dugu gure marka hori dela. Ildo horretatik zertzelada batzuk egin ditugu: Kultur Mahaia, Kirol Aholku batzordea, Topagune Berdea... jarri ditugu abian. Lehen Kultur Mahaia bazegoen, baina bertan behera gelditu zen eta guk berriro heldu diogu. Saiatu gara herritarra udaletxera gertura dadin lortzen; edozein erabaki hartzerakoan, herritarrei kontsulta egiten ere saiitzen gara; gure erabakiek zer ondorio ekarriko dizkien jakitea nahi izaten dugu. Etorkizunean izango dira beste parte-hartze prozesu sakonagoak, baina urtebete besterik ez da pasatu eta oraindik denboraz gaudela iruditzen zaigu.

Parte-hartze taldeetan hartutako erabakiei Udalak nola erantzuten die?

Kirol aholku batzorderako eta Kultur Mahairako herriko elkarteei egiten zaie deia. Topagune Berderako izan genuen zalantza nori eta nola deitu, baina 15 laguneko talde bat elkartu dabatzarretan, eta bileretara etortzerik ez duen jendeak internet bidez parte hartzen du. Gune bakoitzean parte-hartzaile kopurua, batez beste, hori balitz, zenbaki polita litzateke.

“Martxan ziren proiektuen berri teknikarien bidez bakarrik jakin dugulako; eskatu arren, alkatetik alkaterra ez da informazio trukerik egon. Hortaz, hasiera nahiko aldapatsua eta gogorra izan da”

“Denbora libre gutxiago dut; baina, hala ere, betiko ohiturei eutsi diet: lagunekin bidaiak egin, asteburu pasa norabait joan, hondartzan arratsaldea pasatu...”

“Herritarrei kontsulta egiten saiitzen gara; gure erabakiek zer ondorio ekarriko dizkien jakitea nahi izaten dugu. Etorkizunean izango dira beste parte-hartze prozesu sakonagoak”

“Topagune Berdean dokumentu bat prestatzen ari dira, udaletxera ekartzeko. Erreferentzia izateaz gain, uste dut kontuan hartuko den dokumentua izango dela, herritarren parte-hartzeak sortutako zerbait delako”

“Udala elefante handi bat da eta *tempoak* ez daude guztiz gure esku; gehiago daude beste faktore batzuen mendean. Ondorioz, nahi baino motelago lortzen dira gauzak”

Kirol aholku batzordeak hartu dituen erabaki guztiak onartu egin dira ohiko kirol batzordean. Hizketa gai nagusia da herriko kirol taldeen eta Udalaren arteko harremana arautzea, hau da, elkarte bakoitzarekin hitzarmenak egitea.

Diru-laguntza ematen diegu taldeei, baina bere horretan gelditzen da; beraz, kirol elkarte bakoitzarekin hitzarmen artikulatuak egiteko asmoa dugu eta, bide batez, hori arautzea. Esaterako, badakigu Orioko Futbol Taldeak hainbat mantentze-lan egin behar izaten dituela Mendibeltz zelaian eta ohiko diru-laguntza jasotzen duela; baina, hori arautzeko, hitzarmen bat idatzi eta sinatu beharko litzateke, taldea zein Udala zertarako prest dauden zehazteko; bestela, ez da argi gelditzen ardura norena den.

Kultur Mahaiak egiten dituen proposamenak eta eskariak ere aintzat hartzen dira. Une honetan, festa ereduie buruz hitz egiten ari dira taldean eta kulturaren inguruko hausnarketa orokorra lantzen.

Topagune Berdean dokumentu bat prestatzen ari dira, udaletxera ekartzeko. Erreferentzia izateaz gain, uste dut kontuan hartuko den dokumentua izango dela, herritarren parte-hartzeak sortutako zerbait delako. Mugikortasuna lantzen ari dira: autoen, bizikleten eta oinezkoen arteko bizikidetzak. Talde txikitik banatu eta bakoitzak berari dago-kion arloa landu du. Gero, Orioko egoera mapa batean azaltzeko asmoa dugu. Ondoren ikusiko dugu dokumentu horretako proposamenak egiteko modukoak diren ala ez.

Batzordeak edozein herritarrentzat daude zabalik. Parte-hartzeko ohitura indartu behar da. Udala herritarrengana hurreratzeko ariketa egiten dugu, orain arte herritarra hurreratu baita Udalera zerbait behar izan duenean, eskatzera. Bi noranzkoak dira beharrezko eta bien arteko konplizitate lortzea da gure helburua.

Udal hauteskundeetan esan zenuten inprobisazioari tokirik ez zeniotela utziko. Aurreikusitakoa betetzen ari al zarete?

Aurreikusitakoa betetzen ari gara eta espero dut aurrerantzean ere horrela jarraituko dugula; baina epeak luzatu egiten dira. Udala elefante handi bat da eta *tempoak* ez daude guztiz gure esku; gehiago daude beste faktore batzuen mendean. Ondorioz, nahi baino motelago lortzen dira gauzak. Gure helburuak hor daude eta espero dugu programa %100 beteta ikustea. Proiektuak ez dira erabat bukatu; hasi besterik ez dira egin. Motondokoa, esaterako, hasita dago itxuratzen.



Saihesbidea zen zuen lehentasunetako bat. Zertan da kontua?

Gipuzkoako Foru Aldundira jo genuen, guretzat herriaren ordenamendua baldintzatzen duela esateko; baina, oraingoz, zati bat baizik ez da egin. Beste guztia Errepide Sailaren eskumena da eta, une honetan, Foru Aldundiak ez dauka dirurik hori egiteko. Eta, itxuraz, ez da zorpetuko hori egiteko.

Zubia Motondo aurretik aterako litzateke, baina Udalak Motondoko ia lur guztiak erosiak ditu. Europako Ingurumen Sailak Kontserbazio Eremu Berezi izendatu du eta horko helburua zehaztuta dago: eremua berreskuratzea. Iaz 250.000 euroko diru-laguntza lortu genuen proiektu bat egiteko eta Aranzadi Zientzia Elkarteari adjudikatu diogu. Berriz ere padura bihurtzeko proiektua idatzi du eta hori nola garatu aztertzen ari gara, baina nahiko aurreratuta dago. Lurrak erosi zirenean, beste asmo batzuk zituzten, baina garbi daukagu Motondon egin nahi dugunak, eremua berreskuratzeak, lege guztiak betetzen dituela. Orain, finantzazioa lortzeko bidean gaude.

Motondokoa ez ezik, babestu beharreko beste interesgune batzuk ere badaude Orion.

Ondareari dagokionez, Mutiozabaleko ontziola, karroa eta kofradia ere hor daukagu eta guretzat garrantzia daukate; horiek babesteko eta berreskuratze-ko lana egin behar dugu. Mutiozabaleko ontziola eta kofradiako artxibo historikoa ere berreskuratzea nahi ditugu. Bigarren horretako dokumentuak txukun jaso eta ikerketa bat egin nahi dugu. Eraikinak bakarrik ez dira ondarea, kofradia barruan oso altxor garrantzitsua daukagu. Horretarako, dirua lortu nahian ari gara eta eskaera egin dugu Eusko Jaurlaritzako Arrantza Sailean.

Ingurumenean hondakin kudeaketa dabil kalean bolo-bolo. Orion zabor bilketarako metodoa aldatzeko asmorik badago?

Hondakin arazoari zuztarretik heldu behar zaio: zein den egoera, zer behar izango dituen herri honek eta zer egin beharko duen. Urola Kostako Mankomunitateak eskatu du bilketa sisteman bideragarritasuna aztertzea eta aurki jasoko ditugu Garbitaniak, bost herriak kontuan hartuta, egin duen azterketaren emaitza.

Bestalde, argi daukagu, arazoa txikiagoa izan dadin, birziklatzea dela helburua; izan ere, benetan handia da hondakin arazoa. Birziklatzeko tasan nora arte iritsi gaitezkeen eztabaidatu eta aztertu ondoren, ikusiko dugu nola bilduko dugun zaborra.

Batzuek eztabaidaren gunea azken tratamenduan eta hondakin bilketa sisteman jarri nahi dute; guk, ordea, hasierako prozesuari buruz eztabaidatu nahi dugu: zer egiten dugun etxeetan eta zer egin behar dugun. Hasierako gai hori da guretzat garrantzitsua. Nik beti esan dut bi direla helburuak: ahalik eta hondakin gutxiena sortzea, eta sortzen duguna ondo bereiztea. Gero erabakiko dugu nola bildu eta zein tratamendu eman.

Atez atekoa egingo den ala ez eztabaidan jartzeak niretzat ez du balio, ez diogulako arazoari irtenbidea emango hori planteatuz. Bilketa sistema ezberdinek emaitza berdinak emango balituzte, aukeraketa egin beharko litzateke, baina emaitzak dira eztabaidatu beharrekoak. Edukiak aztertu behar dira hondakin kudeaketari buruz hitz egitean; gai serioa da eta herritar guztion egin beharra da arduraz jokatea.

Orion ez da ondo birziklatzen. %29ko birziklatze tasan gaude eta oso urruti gaude guk markatzen ditugun helburuetatik. Nik ikusten dut edukiontzian berdean, *dena jaten duen edukiontzian*, erreusa, kartoiak, botilak, organikoa... denetarik egoten dela. Gaizki birziklatzen diren gauza asko ikusten ditut eta uste dut, ahalegin txiki bat eginez gero, ehuneko hori asko igo daitekeela. %29an gaude eta horrek esan nahi du %71 Urteko zabortegira joaten dela. Zabor hori guztia etxetik hain gertu pilatzeak arazoak ekartzen dizkie zarauztarrei eta baita inguruko herrietako biztanleei ere. Beraz, garrantzitsua da etxean zaborra bereizten hastea: hondakinak bereiztea, gero errazago birziklatzeko. Zaborra hondakin bihurtzea.

Herrian etxebizitza huts asko, berriak saldu ezinik eta gehiago eraikitzen eta gazte asko gurasoen etxea utzi ezinda. Etxe hutsen errolda berritzekoak zineten; baina, behin hori eginda, zer irtenbide izan dezake etxebizitzaren arazoa?

Etxebizitza hutsena arazoa izan daiteke, baina aukera bihurtu behar dugu; alegia, etxebizitza horiek ahalbideratu dezakete gazteek etxebizitza izatea.

Bilduk alokairuaren aldeko apustua proposatuko du. Gipuzkoako Foru Aldundiko etxebizitza departamentuarekin harremanetan ari gara, etxebizitza hutsen errolda bat egiteko. Haiek fiskalitate aldetik lantzen ari dira nola egin dezaketen: aukeratako bat da tasa gehigarri bat jartzea bigarren etxebizitzari... Gure arazoa zen nola deklaratu etxebizitza bat huts; baina lan hori Aldundiak egin digu eta, horren arabera, jakingo dugu zenbat dauden.

Bestalde, etorkizunean egin daitekeen etxebizitza-politikan, hasieratik esan genuen, alokairu soziala bultzatuko duten proiektuak proposatuko ditugula.

Orion azkena egin den sustapen pribatuko etxebizitza tasatuen zozketan etxea tokatu zitzaizen askok atzera egin dute momentuko egoeratik: bankuek ez dutelako krediturik ematen, jendeak sartzeko zailtasunak dituelako, beldurra dagoelako... Udalak zituen hondartzako etxebizitza tasatuak, berriz, laurak inolako arazorik gabe saldu dira. Sustapen pribatukoetan hitzarmena geneukan promotoreekin eta hori nola moldatu daitekeen aztertzen ari gara. Hala ere, prezioak beren esku daude.

Munton badaukagu eremu bat, gartzeko dagoena. Zenbakiak egiten ari gara eta eremu horrek nolakoa izan behar duen aztertzen. Hirigintza Batzordean lehenengo eztabaidatu behar dugu gune horretan nolako etxebizitzak egin behar diren. Hor dago gune bat babestua izan behar dena, baina ez dago markatua babes maila zenbatekoa izan behar den. Beraz, lehenengo egin behar dugu eztabaidatu eta ea hortik zer ateratzen den eta orduan ikusiko dugu zer irtenbide lortuko dugun arazoarentzat.

Bestalde, Munton Eroski zabaltzekoak omen dira. Horrek ez al dio eragingo herriko merkataritzari?

Eroskik bere eskaera eginga zeukan; aurreko legealditik bere pausoak ematen hasi zen eta orain jarraitzen du. Eskaria publikatu da Aldizkari Ofizialean eta orain helegiteak aurkezteko aukera dago. Ondoren, eskumena daukaten administrazioek iritzia eman beharko dute.

Denda berria irekitzekoak omen dira, baina zuek ez zenuten herriko ekipamenduetan ezer berririk egiterik aurreikusten, baizik eta dauden azpiegiturak, beharra izanez gero, herritza.

Aurten zer berrikuntza lan egin duzue? Azpiegiturak tentuz egin behar dira. Inbertsioetarako diru-laguntzak lortzea ez da horren zaila, baina zerbitzu horiek guztiak mantentzeak kostu handia du eta gastu arrunta asko handitzen du. Are gehiago, krisi garaian.

Bestalde, Obra eta Zerbitzu Batzordeak lan txiki dezente egin du. Askorik egiten ez den ustea izaten da herritarren artean; baina banku berri bat jartzea edo zakarrontzi bat lekuz aldatzea, aldaketa ikusgarriak ez diren arren, beharrezko lanak dira, eta horrelako gauza asko egin dira herriko hainbat txokotan.

Kosta tailerra pixka bat moldatu dugu, Udalean sartu eta berehala konponketa batzuk egin genituen eta. Salatxoko plaza egokitzerakoan atera den ekipamen-

“ Saihesbideko zubia Motondo aurretik aterako litzateke, baina Udalak Motondoko ia lur guztiak erosiak ditu. Europako Ingurumen Sailak Kontserbazio Eremu Berezi izendatu du eta horko helburua zehaztuta dago: eremua berreskuratzea”

“Mutiozabaleko ontziola eta kofradiako artxibo historikoa ere berreskuratu nahi ditugu.

Bigarren horretako dokumentuak txukun jaso eta ikerketa bat egin nahi dugu”

“Orion ez da ondo birziklatzen. %29ko birziklatze tasan gaude eta oso urruti gaude guk markatzen ditugun helburuetatik. Edukiontzia berdean, *dena jaten duen edukiontzian*, erreusa, kartoiak, botilak, organikoa... denetarik egoten da”

“Etxebizitza hutsena arazoa izan daiteke, baina aukera bihurtu behar dugu; alegia, etxebizitza horiek ahalbideratu dezakete gazteek etxebizitza izatea”

“Orion azkena egin den sustapen pribatuko etxebizitza tasatuen zozketan etxea tokatu zitzaizen askok atzera egin dute momentuko egoeratik: bankuek ez dutelako krediturik ematen, jendeak sartzeko zailtasunak dituelako, beldurra dagoelako...”

du edo areto berria txukun jarri dugu eta orain horren erabilera bultzatu behar dugu, aretoa goxoa delako. Mendibelteko garajeek astindu bat behar izan dute eta gaztelekuan ere egin ditugu konponketak.

Kale garbiketan ere ahalegin berezia egin dugu. Izan ere, herria handitu den arren, garbiketa zerbitzuaren kontratuan ez da aldaketarik izan eta lehen garbitzen ez ziren gauza batzuk garbitu beharra dago.

Lekuak txukun jartzeaz gain, Kosta Tailerra, Kultur Etxea eta Salatxoko aretoaren mantentze-lanaz eta antolaketaz arduratzeko pertsonala gehitu dugu. Izan ere, eguneroko mantentzearekin lortuko dugu ekipamendu horiek ez hondatzea.

Kirola aipatu duzu eta aisialdian kirolak toki asko hartzen du Orion, eta arraunak zer esanik ez. Arraun Teknikazio Zentroa aurrera doa. Zer onura ekarriko dizkio Oriori?

Onurak ekarriko dizkie han ibiliko diren kirolariei, Arraun Klubari nagusiki, ohiko erabiltzailea izango delako. Kanpora begira, Arraun Teknikazio Zentroak ahalbideratuko du aisialdian arrauna egin nahi duenak gune bat izatea. Orion beti izan gara arraunzaleak; baina orain, ikusteko ez ezik, arraunean egiteko aukera ere zabalduko dugu.

Orain obra bukatzen ari dira eta ekipamenduen adjudikazioak eginda daude. Ekartzen dituztenean, instalatu eta, ondoren, azken ukituak eman beharko dira. Oraindik ez dago ziur, baina udako beroak bukatu baino lehen irekiko dela esan genezake.

Arraunaz gain, beste kirol batzuk egiteko, Karela kiroldegira joaten dira herri-tarrak. Jendeak, ordea, berrikuntza beharra duela esaten du. Aldaketarik aurreikusi al duzue kiroldegirako?

Obrei dagokienez, inbertsio batzuk egin dira eta beste lan batzuk egiteko daude: koadro elektrikoa, teilatua, hezetasunak... konpontzeko. Hain zuzen ere, hori da erabiltzaileek eskatzen dutena. Bestetik, funtzionamendu eta bideragarritasun ekonomiko aldetik, zer neurri har daitezkeen aztertzen ari gara. Orio herri txikia da eta ahalegin ekonomiko handia eragiten dio Karelak.

Gazteak Etxeluzen sartu zirenetik gaztetxeak eman du zeresanik. Etxearen erosketa aipatu zenuten, ezta?

Agintaldiko lehentasunetako bat hori zen eta erosketa prozesuan gaude, beharrezko tramite guztiak egiten hori ahalbidetzeko. Bien bitartean, gazteekin bilerak izan ditugu dena azaltzeko. Hala ere, haiek kexu dira prozesua motel doalako eta arrazoi guztia dute, baina ulertu



behar dute horrelako gauzak pixkanaka egiten direla eta denbora behar dela.

Horrelako prozesuak denboraren mende daude, baina agintaldiko lehen urtean zuen asmoetako bat bete duzue: as-teburuetan plaza oinezkoentzat izatea.

Asmo hori martxan jarrita jaso dugun erantzuna, orokorrean, positiboa izan da. Jendeari asko gustatu zaio eta eguraldi onarekin nabaritzen da aldaketa. Kalitate handia eman die oinezkoei, haurrei, gurasoei eta plazan egon nahi duten guztiei eta plazari ere beste buelta bat emateko balio izan du.

Zenbait herritar etorri da horren inguruko proposamenak ekartzera eta aztertzen ari gara; beraz, baliteke oinezkoen eremu horretan aldaketaren batzuk izatea: ordutegia, norabidea, Iturbide kalean sortutako zirkulazio-arazoak konpontzeko plangintza bat egitea... Baina egin dugu benetan sinesten dugulako eta egiten jarraituko dugu. Horrek ez du esan nahi jasotako eskaerak eta proposamenak aintzat hartuko ez ditugunik eta konponduko ez ditugunik sortu daitezkeen arazoak.

Turismoa erakartzeko, besteak beste, kanpinean egin dira berrikuntzak. Beti-ko erabiltzaile batzuk, ordea, ez omen daude konforme.

Guretzat kanpina estrategikoa da. Orioko herriarentzat diru iturri oso egokia da. Pena da orain dela urte asko bezala ez egotea, baina daukaguna daukagu eta horri buelta emango diogu. Orain inber-

“Salatxoko plaza egokitzerakoan atera den ekipamendu edo areto berria txukun jarri dugu eta orain horren erabilera bultzatu behar dugu, aretoa goxoa delako”

“Arraun Teknikazio Zentroak ahalbideratuko du aisialdian arrauna egin nahi duenak gune bat izatea. Orion beti izan gara arraunzaleak; baina orain, ikusteko ez ezik, arraunean egiteko aukera ere zabalduko dugu”

“Kiroldegian, funtzionamendu eta bideragarritasun ekonomiko aldetik, zer neurri har daitezkeen aztertzen ari gara. Orioko herri txikia da eta ahalegin ekonomiko handia eragiten dio Karelak.”

“Etxeluzeren erosketa prozesuan gaude, beharrezko tramite guztiak egiten hori ahalbidetzeko. Hala ere, gazteak kexu dira prozesua motel doalako eta arrazoi guztia dute”

tsio batzuk egin ditugu eta hara joaten denak ikusiko du askoz ere txukunago dagoela. Orain arte egin ditugu atzeko lanak eta, uda denboraldia bukatu ondoren, hasiko gara beste lan mota batzuk egiten. Azken helburua da kanpina bizi-rik egotea urte osoan eta kalitatezko beste turismo mota bat etor dadin bermatzea. Horretarako, azpiegiturak antolatu behar dira Euskal Herriko eguraldia kontuan hartuta eta, horregatik, jarriko ditugu bungalowak. Gainera, jendea denbora gehiago baldin badago, zerbitzuak ere egokitu behar dira. Inbertsioak 2014ra arte zehaztu ditugu. Finantzazioa aurkitzeko zailtasun handirik ez dugula izango aurreikusi dugu. Eusko Jaurlaritzarekin ari gara gaia bideratzen.

Kanpineko betiko erabiltzaile batzuk kexatu dira, bai, toki aldaketak direla eta. Haiekin elkarrizketak izan ditugu eta, beren kexak normalak diren arren, Udalak lehentasunak eta proposamenak ditu eta saiatu gara biak ahalik eta modurik onenean uztartzen.

Orioko kanpotarrentzat erakargarri egiteko txu-txu trena erabili du Udalak azken urteotan. Aurten ere gure artean izango da, ezta?

Txu-txu trena Udalak erosi egin du eta, hori kudeatzeko, Arkupe merkatarien elkartearekin egin dugu hitzarmena udarako. Haiek arduratuko dira langilea hartzeaz, aseguruaz... Ikusiko dugu nola funtzionatzen duen, baina jendea eska-

tzen ari da eta argi dago lehen exotikotzat ikusten zena gaur egun beharrezko zerbitzutzat hartzen dela.

Festa berezietan Orio Estilora marka erabili izan da. Bere horretan eutsiko al diozue?

Bisiguaren Eguna egingo dugu uztaileko hirugarren asteburuan. Orio Estilora marka ostalaritzara bideratuko dugu, Bisiguaren Egunetik kanpo ez diogulako zentzurik bilatzen marka hori erabiltze-ari.

Udalak herriaren premiak betetzen ditu, baina Udalak berak zer premia ditu bere jardueran?

Langile onak ditugu; baina, beharbada, lanak optimizatzeko ariketa txikitxo bat egin daiteke, herritarren beharrei azkarago erantzuteko.

Langileei dagokienez hori, baina gai-nontzeko alderdiekin lanean behar berezirik sumatzen duzue?

Funtsezkoena zinegotzien jarrera da. Lana egin eta adostasuna lortzeko helburua izanez gero, eztabaidak egongo

“Plaza oinezkoentzat jartzeak kalitate handia eman die oinezkoei, haurrei, gurasoei eta plazan egon nahi duten guztiei eta plazari ere beste buelta bat emateko balio izan du”

“kanpina bizirik egotea urte osoan eta kalitatezko beste turismo mota bat etor dadin bermatzea. Horretarako, azpiegiturak antolatu behar dira Euskal Herriko eguraldia kontuan hartuta eta, horregatik, jarriko ditugu bungalowak.”

“Nik ez dakit agintaldia nola bukatuko den, baina egoera ekonomikoak erabat baldintzatuko du gure lana.”

dira, nork bere iritzia izango du, baina denok helburu bera izango dugu.

Gaur egun, udalbatza osoak ez dauka jarrera hori eta espero dugu aldatzea. Batzordeak dira eztabaida guneak eta udalbatzarrak aurrez hartutako erabakiak onartzeko edo ez onartzeko edo adierazteko guneak. Batzordeetan eztabaidatzen ez diren gaiak ohiko udalbatzarrera eztabaidatzera eramateak ez dauka ez hankarik eta ez bururik, baina hala gertatzen da.

Murrizketen garaian gaude. Nola eragin dute Orion?

2012ko aurrekontuak garatzeko garaian azkenengo zentimoraino begiratzen ari gara zer gastatzen dugun, ikusten dugulako zer gertatzen ari den. Errealitatea gordina da eta, momentu honetan, guri horrenbeste eragiten ez badigu ere, gurean ere gerta daitekeela ikusten dugunez, ongi ari gara begiratzen zer gastatzen dugun eta zer ez.

Aurrekontuak onartu genituenean soberakinak gastatzea aurpegiatu zigu-



ten, baina soberakinak herritar guztionak dira eta poltsa hori egin da herrian egin diren jarduerari esker. Beraz, soberakina gastatzen bada, beste gauza batzuk egiteko izango da.

Zer murrizketa aurreikusi dituzue 2013rako?

2012ko aurrekontuak egin ditugu aurreko urtekoetik milioi bat jaitsita eta 2013an beste horrelako ariketa bat egin beharko dugu, diru sarrerak ez direlako lehengo berak izango, ez beste administrazioetatik, ez herritarrengandik, eta ezta tasetatik ere.

Urtebete pasa da alkate kargua hartu zenuenetik eta agintaldia amaitzeko beste hiru gelditzen dira. Nolakoak izango direla aurreikusten duzu?

Lehenengo hau aldapatsua izan da; batez ere, gure burua kokatu egin behar izan dugulako eta datozen hiru urteetan hori desberdina izango da. Nik ez dakit agintaldia nola bukatuko den, baina egoera ekonomikoak erabat baldintzatuko du gure lana.

HITZIK ONENA, LABURRENA

Egia motz bat, gezur luze bat baino hobea dela dio esaerak. Hortaz, Beñat Solaberrietari berari buruz egindako galderei ahalik eta laburren erantzuteko eskatu diogu.

Film bat: E.T. da nire filma.

Liburu bat: Mesanotxean 564 liburua daukat eta aurretik *Lagun izoztua* irakurri dut.

Abesti bat: *Negua joan da eta...* Azken urte eta erdian izan dut kanta hori buruan eta asko gustatzen zait

Bizio bat: Tabakoa. Abentura honetan sartu aurretik utzi egingo nuela esan nuen; baina, behin sartuta koan, nire gorputzak lau urte agoantatu beharko zituela pentsatu eta...

Mania bat: Tabakoarekin batean doan zerbait da azazkalak jatea.

Kolore bat: Horia.

Inoiz jantziko ez zenukeen arropa: Mozorrotzeko edo Gabonetan ez bada, ez nuke txapela bat jantziko.

Askotan janzen duzuna: Beti, beti, beti galtza bakeroekin joaten naiz.

Zaletasuna: Asko gustatzen zait mahai baten bueltan, kafe bat har-

tuz, lagun koadrila elkartu eta hitz egitea.

Oporretarako tokiren bat: Oso bidaiazalea naiz eta egin behar ditudan bidaia batzuk dauzkat gordeta. Asko gustatzen zaizkit kultur kontrastedun herrialdeak.

Kirol bat: Tenisa.

Jateko bat: Arroza daukan edozer.

Edari bat: Kafea.

Kafea nolakoa: Ebakia edo hutsa, baina beti izotzarekin.

Mendia ala hondartza: Hondartza. Asko gustatzen zait hondartzara joan eta egonean egotea.

Orioko txoko bat: Itsasotik gertuen dagoen toki bat. Itsaspe, hondartza...

Oriorako beste alkate bat aukeratu beharko bazenu: Orioko alkate batek izan behar luke herriko eragileetatik ateratako edozein aktibista.

Orio ideala hitz gutxitan: Eragileak martxan izango dituen herri euskalduna, herritartasuna eta nortasuna aintzat hartuko dituen.

Amets bat: Euskal Herri libre batean bizitzea.



Oinetako mina

L dut gustuko osasun etxean edota dentistan kontsultan egon ohi den usaina: halako tokietan, ongi dagoena ere gaixotu egiten da. Arrazoi horregatik, beharbada, mina jasangaitza denean soilik jotzen dut profesionalengana. Medikuek diote gaixotasunak sendatzeko biderik onena prebentzioa dela, baina...

Hara, 10 egunez oineko minez egon ostean, podologoari bisita egin nion joan den astean. Eskuin oineko behatz lodia minduta neukan eta baita oinaren gaineko aldea ere. Oinetakoak kendu eta berehala antzeman zidan arazoa non zegoen bata txuriko profesionalak: eskuinteko behatzean *juanikotea* daukazu eta baita *'zahartrosia'* ere! *Juanikotea* ez dauka atzera bueltarik eta, hemendik 10-15 bat urtera, ebakuntza egin beharko dizute. Bestalde, artrosia adineko pertsonen gaitza izaten da eta zu gaztea zara, baina ez dago dudarik, zuk artrosia daukazu. Kopetan behera izerdi tanta

bat zetorrela konturatu nintzen: 26 urterekin eta artrosia? Hor ez zen amaitu diagnostikoa, ordea. *Oin lauak dituzu eta barne-zolak (plantillak) erabili beharko dituzu aurrerantzean. Horrekin ez dugu zure oin lauak aldatzerik lortuko, baina mina gutxitu eta lesioak eragozten lagunduko dizute.*

Une batez nire haurtzarora egin nuen jauzi. Umetan barne-zolak izan nituen, gogaikarria eta deserosoa zen niretzat horiek oinetakoan barruan nituela ibiltzea, baina, nire hobe beharrez, berriz ere atzera egin behar. Eta kontsultatik irten aurretik, hazitako oina bere onera etor-

tzeko krema bat eman zidan; naturala, gainera!

Kezkatuta irten nintzen kontsultatik. Gaztea naiz oraindik, baina oinak zaindu behar ditut; bestela, akabo! Oinak dira gure gorputzaren oinarria eta, huts egiten badute, makina osoa eroriko da. Orain arte ez ditut oinak batere zaindu, baina aurrerantzean gehiago zaindu beharko ditut. Erreskate plana ere prestatu dit profesionalak: *etorri uda ostean kontsultara eta zure oinaren estudioa egingo dut eta, horren arabera, hartuko ditugu erabakiak.*

Etxera joan, telebista piztu eta Espainiaren erreskatea da gai nagusia. Espainiari, niri bezala, oinek huts egin diote. Diruak, bankuek eta ekonomiak eusten duten gizarte moderno eta bankuek huts eginez gero, kolokan jartzen da dena. Nik barne-zolak beharko ditut mina arintzeko, baina estatu espainolari pasatuko al zaio oinetako mina 100.000 milioi euroekin?

Etxera joan, telebista piztu eta Espainiaren erreskatea da gai nagusia. Espainiari, niri bezala, oinek huts egin diote



BARAKA
guzko horria

Ordutegia
17:30ak
Plaza Souharratua
Eibara, Araba

945 15 15 12
A201

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

MANEJAMENDU Aholkularitza
ARABAKO Aholkularitza
ARABAKO Aholkularitza
LAN BARRUTIA Aholkularitza
Finantza aholkularitza
ALABAI Aholkularitza

Julio Mendizabal Garmendia
Tel. 943 33 25 25

Alfonso Pardo Mendizabal
Tel. 943 33 25 25
Tel. 943 33 25 25

INDO
Garraio frigorifikoa
NACIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

LUXARBE
igeltserietan

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfn: 943 53 59 00

Carmen eta Txomin
ARRANZALEA

943 83 05 37 / 943 83 27 47

ITSASADARRA, S. L.
Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 69 40 29 Fax 943 63 54 94 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ordo 4. beheaz. 20810 Orto

Gabon
TABERNA
plater katekoak eta aperitiboak

Tfn: 943 83 06 09

PIZZERIA
KALETA

ARRANZALE BALEA, 10
TELEFONOA: 943 14 89 46

Putak eta marikoiak

Pkainaren 2a: prostituten eskubideen eguna. Ekainaren 28a: translesgay harrotasun eguna.

Onartzen dut, badut probokatzaile sena. Gogoko dut zalantzan jartzeko ez dena astintzea. Gogoratzen dut nerabezaroan, Orion bizi eta *heavy* itxurak neramatzanekoa. Zer adrenalina txutea izaten zen, Zarautzerako bidean, Loretxu taberna paretik pasatzea: galtza elastikoak, txupa eta nire txima luzeak nahikoa ziren zerbaite apurtzen ari nintzela sentitzeko. Bankuan eserita zeudenen epai-begiradak lotsa ere ematen zidan, jakina, baina nire lotsa gainditu eta nahi bezala janzteko ausardia izateak are gehiago jartzen ninduen, eta buru-estimaz gainezka iristen nintzen lagunengana.

Antzeko sentsazioak izaten jarraitzen dut lotsari aurre egiten diodan aldioro. Azkena, Donostiako San Martin azoka parean, *Denok gara putak* kartela eskutan, sexu langileen aldeko elkarretaratze alaian. Edo iazko sanpelaioan, PottorBero Mugimenduak deitutako manifan, pareo luzea jantzita *Gona eta minifalda!* lelodun pankartari eusten. (Bide batez, ez al da lelo bikaina, EHan bizi nahi dugun aro berrirako? Autokritika, umorea eta aldarrirako iraultzailea, dena bat).

Zorioneko sentitzen naiz. Orio utzi eta 20 urtera, nirea izan zen ikastolan lan egiteko aukera izan dut. *Harremonak* egitasmoaren baitan, Orioko nerabe, guraso eta irakasleekin gozatu eta ikasi dugu. Norbere burutik hasita, elkarri tratu hobea ematen ahalegindu gara. Eta hainbat aurreiritzi erronka nituela. Esaterako: zer da gona *motzegia* daraman neska? Eta gona daraman mutila? Epai horiek denok egiten ditugu. Eta oharkabean, guztion bizitzak grisagoak bihurtu. *Putak* izena du neskek

bizi duten kartzelak. Eta *marikoiak*, mutilonak. Denok sufritzen ditugun espetxeak: itxiak, aspergarriak. Eta bortitzak.

Neskek ikasten dute desiratzea okerra dela, ezin direla joan plazer bila. Zain geratzea dago kiela haiei: eder, isil, formal. Desiren objektu izaten ikasi, eta desiratzailer agertzen den neska baztertzen dute, ausartegi jokatzeagatik. Desiragarri bihurtu ditugu, eta jaso ditza keten erasoan erantzule ere bai (gizonok gara kontrolatzen ikasi beharra dugunak, eta nesken gaineko kontrolari uko egin). Printze/otsoen zain egotera kondenatuak, mundu guztia kritikatzera zigortzen ditugu; batez ere, beste neskek: *puta!*

Mutilok ikasten dugu, gizon bihurtzeko modu bakarra dagoela. Eta gizon bilakatzeak nahikoa pribilegio dituela beste guztiak merezi izateko. Horrela, bidean galtzen ditugu koloreak, irribarrea, dantza, samurtasuna, panpinak, ezpainenak, malkoak, letra ona, lagunekin eskutik joatea, takoiak... eta bortizkeriaren mehatxurik gabe bizi ahal izango garenaren itxaropena. Badakigu zer ez dugun egin behar gure gizentasuna zalantzan jar ez dadin. Eta guk galdutako plazerei uko egin nahi ez dietenak zigortzeko prest gaude: *marikoiak!*

Nork ez dio inori puta edo marikoi deitu inoiz? Sekula izan al du zerikusirik lanbide edo sexu-joerarekin? Ez. Baina bi kolektibo horiek, prostitutek eta homosexualek, jasaten duten estigma eta bazterketa amaituta, guztiok sumatuko genuke arindua. Bitartean, arauak ez betetzeak, besteak bezalakoa ez izateak pizten dizkigun lotsen preso bizi gara.

Merezi du lotsa pasatzeak: eskerrik asko esatea amari; maite zaitut, aitari; pasa zaidan gauzarik ederrena zara, semeari; alabak media zulatuak jantzita kalera irten nahi duenean isilik geratzea; irakasleak hanka-sartzea onartzea gelan... eta batez ere, ispilu aurrean gaudenean, pentsa ditzakegun piropo guztiak ozen aldarrikatzea, begietara begira.

Denok biziko gara askeago. Eta zoriontsuago. :-)

Nire honetan
Miren Etxeberria

Beste beterano baten agurra

Kasturteko azken KARKARA, nire azken KARKARA. Ai, ama! Iritsi da eguna.

Jakinaren gainean zaude-tela badakit, bai, aurretik ere esan baitute beste bi beterano agur esateko garaia iritsi zaigula. Hau da, erreleboa emateko unea, beste aro bati ekiteko garaia. Atzetik datozenek ideia berriak, asmo berriak eta jakinduria berriak dituzte, eta denon mesedera-ko izango dela ziur nago.

Haize berriak on egingo dio aldizkariari, eta horretarako, karkarakide beterano-ok alde egitea beharrezkoa dela iruditu zitzaigun.

Gaur bertan bete ditu KARKARA aldizkariak 23 urte. San Pedro egunean irten baitzen plazara lehendabiziko zenbaki hura. Gezurra dirudi, zer azkar pasa den denbora; eta ez alferrik, baina.

Denbora horretan, jakina, denetarik izan da gure artean zein herritarren eta gure arteko hartu-emanetan. Baina oroimen onak, bizipen zoragarriak eta sentsazio ezin hobeak dira nagusi. Zer esango dizuet, bada? Bestela nola pasatu hainbeste urte?

Nolanahi ere, eskerrik be-roenak irakurle guztiei, eta gure proiektuan parte hartu duzuen guztiei.

Gazte jendea gogotsu dator plaza honetara, lan egiteko gogoz; eutsi goiari! Aldaketak beti dira onerako eta beharrezkoak.

Arauek ez betetzeak, besteak bezalakoa ez izateak pizten dizkigun lotsen preso bizi gara

arreak, urdaikiak, gaztak,
kantserbak, janari prestatuak

elxeraino
eramaten ditugu



943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S.L.

• Baserrietako igeltsenitza eta egurrezko estrukturetan adituak

• Etxeen berrikuntzak:

- fatxadak
- sukaldeak
- teilatuak
- bainu gelak...

Tf: 665 718 966 (Jon Arruti)

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@cejaerwaljafhoz.es
BORIO ORIO

- ATAK IRIBITZEREN OTTUEN
- SARRAILA ZILINDRO ALDAKETA
- ATAK IXTEKO MALDURRI ALDAKETA
- KOMUNITATERITZAKO ZERBITZUA

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p>Tabita Agote-Isabellariak Agote, N. 10740 Zizcaya</p>	<p>Irakastekak San Francisco, 1. 20093 Zarautz</p>	<p>Alta Lortuzak, S.L. 20010 Ormaiztegui Tel: 943 89 48 36</p>
---	---	---



TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L

INDUSTRIAL - BAIKOAK

Santiago ezua - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
180 900

Eskerako balbula
AENOR kalitate ziurtaginduna




mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943 572083
FAX: 943 571190
casenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



GARMENDIA

IRIBITZERIA - AHOZKALARITZA - ABEZTUAK

Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941



TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hilabete eta zerbitzu orokorrak

* Donazio eta probintziako ospitaleetan
* Aldiarako zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Koroiak, eskalak, tranziatoiak...

Araba kalea, 35. Zarautz
Tel: 943 89 48 37 | Fax: 943 89 48 41
e-mail: haztegi@tanatoriozarautz.net

Oreka energetikoa

Bachen loreak

Induskeri, nekazaritza, enpresa
aldarriko erregulazioa, erregulazioak?

utzi alde batera
emozio negatiboak

Ikasgaiaren erregulazioa
Tel: 943 83 01 89



ORIOGI

OPIL OXINDEGIA
Frontoi ondoan
Tfnoa: 943 83 01 89

UTZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo

Asesora-argazkilaria

ASEGURUAK

ABESLARI, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07



Sagasti

LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Ormaiztegui (Gipuzkoa)

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Arta Lantzaridi, 33. bidea - ORIO
Autobus parada ondoan

iñaki argazkiak

caperochipi

ezkontzeka asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com



sinergia

investigacion fisioterapia

FISIOTERAPIA - Geriatría - Anestesiología - Natación - Watsu - Acupuntura - FORTIFICACIONISTA - Geriatria - Acupuntura

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

Bilduren agintzeko gaitasun falta

Orioko EAJ oso kezkatuta dago Piraguismo eta Arraun Teknikazio Zentroaren etorkizuna dela eta. Proiektuak daraman bidea jarraituz, estatuan eta Europan erreferente izan behar zuen zentroa, herriko arraun taldearentzako tamaina handiegia duen eraikin batean soilik gera daiteke, Bilduren borondate, gaitasun, ideia eta irizpide faltagatik.

Bada urtebete Bildu udaletxera iritsi zela eta, teknifikazio zentroaren kudeaketan, bere gaitasun eza nabarmena izan da. Ez dira gai izan euro bakar bat lortzeko teknifikazio zentro berrirako eta aurreko agintaldiko udal gobernua hitzartutako ia 2 milioi euroko dirulaguntzak galdu dituzte, gainera. Hain da nabarmena Bilduren utzikeria, galdu den azken dirulaguntza, eskaera alkate berriaren sinadurarekin, Madrilera epez kanpo bidali dutelako gertatu dela. Saiakerarik egin al da Madrilera joan eta 300.000 euro horiek herrira ekartzeko? Guk dakigula, ez.

EAJren beste kezketako bat da, Teknifikazio zentroaren etorkizunari buruz, Orioko udaletxea kudeatzen duen alderdiaren proiektu eta ideien berri gabezia. Horren adibide, Bilduk ez du arraun eta piraguismo ontzirik aurreikusitako zentroan. EAJk defendatzen duena zera da, soinketa gelako materiala eta ontzien jabea zentroa bera izatea. Ontzirik gabe oso zaila baita nazioarteko talde eta selekzioak bertaratzea eta zentroari dago-kion etekina ateratzea.

Egoera horretan, arraun taldeak berak materiala erostearen inguruan egin dako eskaeratik kanpora geratu da EAJ..

KARKARAK udaran lanean jarraituko du

Gure erredakzioak ez du atsedenik hartuko uda honetan ere. Paperekoa berriz atera arte iraila iritsiko bada ere, webgunea elikatuko dugu uztailean eta abuztuan. Hala, Aiako eta Orioko albisteak herriarren eskura izango dituzue beste behin. Besterik gabe, pasa ezazue uda on bat, baina ez ahaztu gu bisitatzeko www.karkara.com helbidean!

EAJren ustez, zentroak berak erosi beharko lituzke arraun eta piraguismoko ontziak, behar hauek arraun taldearekin adostuz. Horrela jokatzuz, ontzien jabetza zentroak izango luke, eta mantentzea ere bere gain hartu beharko luke. Horrela, alde batetik, zentroak ontziak izango lituzke selekzio eta nazioarteko taldeei eskaini ahal izateko, eta bestalde, ontzi horiek Orioko arraun taldeak erabili ahal izango zituen, hitzarmen baten bitartez. Hala, Orioko arraun taldeak ez luke euro bakar bat gastatuko ontziak erosi eta mantentzen.

Hau da Orioko EAJk proposatzen duen gestioa. Horrelako irizpideekin lortu ahal izan dugu Orioko Udalaren gestio ekonomikoa, duela urtebetera arte, Gipuzkoako osasuntsuena izatea. Zorrik gabe, 12 milioi euro utzi zituelarik udal kutxetan. Bilduren gestio kaxkarragatik eta kanpoko dirulaguntzak lortzeko duen gaitasun ezagatik, urte amaieran, 8 milioitara jaitsiko da udal kutxetan egongo den diru-kopurua. Hau da,

Etxeluze ondoko arranplan oztopoak

Azkenaldian Etxeluze ondoko arranpla oztopoz beteta egon dela eta, bere kexa azaldu du irakurle batek: *Badira hilabete batzuk, arranplan, txalupa batek eta eskailera batek erriora sartzea galarazten dutela. Noiz arte horrela? Norenak dira eta nor da arduraduna? Ea lehenbailehen kentzen dituzten eta arranpla edonork erabiltzeko moduan uzten duten. As-teartean jaso genuen kexa KARKARAN eta, ohartzerako, asteazkenerako, eskailera kendu zuten arranplatik. Txalupa handi dago, ordea, jabeak noiz kenduko zain.*



18 hilabeteetan, Bilduk diruaren %30 xahutuko du. Hau al zen, Bilduren ustez, Oriok eta oriotarrek merezi zuten aldaketa? ■ **Orioko EAJ**

Okerrak zuzentzera

Karmele Esnal zenaren anaia Jose Manuelek esanda jakin dut oker bat egin nuela aurreko KARKARAN plazaratutako artikuluan. Oker hura zuzentzera dator ohartxo hau: Esnal Zulaikatarren familia ez zen Oriotik kanpora joan 1936an, gerra hasi zenean, eta 1941ean Donostiara joan zirenean ez ziren joan inork etxea edo beste ezer kendu zielako, ez baitzen horrelakorik gertatu. Bestelako arrazoiengatik jo zuten Donostia aldera.

Honen bestez, okerra zuzenduta dagoelakoan, eskerrak eman nahi dizkiot Jose Manueli, elkartu ginenean erakutsi zidan jarrera adeitsu eta atseginagatik. ■ **Iñaki Iturain**

Dikeko parkeko zuhaitza zerratu zutenei

Ekainaren 9an, gazte batzuei zuhaitz bat zerratzea bururatu zitzairen, eta egin ere egin zuten. Zorritzarrez, gazte horiek gaztetxean egon ziren parrandan, eta etxera bidean egin zuten astakeria.

Ekintza horren aurrean gaztetxeak eta gaztetxe asanbladak, zuhaitza zerratzea eta zelaian autoarekin ibiltzea errefusatzen duela adierazi nahi du; garbi utzi nahi dugu ekintza horrek ez duela gaztetxearekin zerikusirik, pertsona horiek, beste edonon egonez gero ere, gauza bera egingo baitzuten. ■ **Gaztetxea eta gaztetxe asanblada**

Moilan ibili ezinda

Moila da tokirik inportanteena herritarrontzat. Jende asko ibiltzen da handik eta elkargunea da aspalditik. Hala ere, moila guztian ez dago ibiltzerik. Aroste-gi tailerra dela eta, herritarroekin dugu pasa handik, oztopoz beteta egoten delako. Ez dakit zilegi den, baina, asteburuetan, baita jaiegunetan ere, trabaz beteta egotea ezin dugu ulertu herritarrok. Lanerako erabiltzea gauza bat da baina aparkaleku pribatu bezala erabiltzeko ez dago eskubiderik. Bada ordua Udalak edo dagokionak gehiegikeria hori galarazteko. Espero dugu udan umeekin gabiltzanok eta ezinduak bertatik pasatzeko erraztasunak izatea. ■ **Herritar bat.**



Ikastola saloian zegoen garaian mantalak lotzeak zuen esanahiagatik aukeratu zuten irudia azalerako. O.H.I.

40 urtez mantalak lotzen kritika

Kritika 40 urtez mantalak lotzen

Orioko Herri Ikastola,
2012ko ekainaren 1ean aurkeztua.

Ez da oso txukuna batek parte hartu duen liburua gaineko kritika egitea; baina, besterik ezean, hala egokitu zait oraingoan.

Liburu oso txukuna egin dute Orioko Ikastolak eta Kultur Atelierrek, Xabier Sukiak gidatuta. Joseba Orellak egindako lana azpimarratu nahi izan zuen Sukiak, eta ez da harritzekoa, hainbeste jendek parte hartu duen liburu

koa koordinatzea ez baita lan makala.

Argazki asko ditu eta erraz irakurtzen den liburua da. Fotografien egileak bata baino gehiago diren arren, Iban Egigurenek egindako lana nabarmendu behar da guztien gainetik. Argazki saio bat baino gehiago egin behar izan du Egigurenek libururako eta emaitza harrigarriak lortu tartean.

Sorreratik gaur egun arteko ikastolako gurasoen, ikasleen, irakasleen, zuzendarien eta lehendakarien hitzak biltzen dituzte liburua. Batzuk parte serioak dira, baina erregistro positiboan kontatuta koak. Beste batzuk, umorez

beteak. Komikiak ere badaude tartean, askori ezagunak egin zaizkigun pasarteekin eta ez genekizkien beste zenbaitekin. Guztiak umoretsu eta bizi-bizi kontatuak.

Herriko historia biziaren liburua da ikastolak argitaratu duena. Egungo egoera nondik datorren ulertzen laguntzen duena, eta herritar guztiek irakurtzea komeni dena. Salgai dago herriko zenbait tokitan, eta prezioa ez da garestia Orioko Udalaketa Kutzak emandako laguntzari esker: 10 euro. Eskuetan hartu eta irakurtzea gomendatzen dizuet, merezi du-eta.

[IKER GURRUXAGA]

Ikasleak idazle
Mikel Lizarralde

Eskolako jai

Tkainaren 2an, larunbatarekin, Zaragueta Herri Eskolako festa ospatu genuen. Jaialdian ekin-tza asko egin genituen: dantza, antzerkia, musika eta bertsoak. Ikusleak oso pozik geratu ziren ikuskizunarekin; baina, batez ere, Michael Jacksonen *Thriller* koreografia gustatu zitzaizkien gehiena.

Jaialdiaren ondoren, eskolako jangelan, bazkaria izan genuen eta arratsalde osoan patioan puzgarrietan eta jolasean aritu ginen.



Urtero bezala, jaialdia bukatzeko, guraso eta ikasleen arteko futbol partida egin genuen. Aurten, ikasleok irabazi dugu. Bitartean, partidaren parte hartu ez zutenek disko festarekin animatu zuten arratsaldea.

Asko gustatzen zait festa egun hori, kurtso bukaera iristen dela adierazten duela eta udako oporrak gertu ditugulako.

Jaialdia bukatzeko, guraso eta ikasleen arteko futbol partida egin genuen. Aurten, ikasleok irabazi dugu.

HAIZE BERRI
taberna-jate-haia-kalelaga

Plater karabinatuak, bakadak, handi-guzak, ruziak, ogatikoa...
eta asko gehiago zerbiztuta!

3. eta 4. kaleak, 48. 943 83 00 44

943 83 09 86

KOASTA

Wifi zerbitzua
Kooak, dau giro aparta...

KOLON TXIKI

Herriko Euzkaria, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso dekorazioa

Emaka Gudari, 45
Tel. 943 83 00 44

» OSPAKIZUNA



50 urte elkarrekin

1962ko ekainaren 23an eman zioten elkarri baietza Ageda Eizagirrek eta Inazio Lizarraldeki Loiolako basilikan. 50 urteren ondoren, egun berean, baina Aiako Amasportu etxetik gertuago, ospatuko dituzte urrezko ezteiak San Martin basilizan. Meza ez ezik, familia artekoekin bazkaria ere izango dute gero Katxiñan. Elkarrekin pozik jarraitu eta zorionak, Ageda eta Inazio!

» HANDIK ETA HEMENDIK

“Orioko bixigua besteetatik bereizten duena da parrillan egiten dela, bixiguterarik gabe. Arrain hori prestatzeko modu praktikoagoa eta egokiagoa da”

Jose Migel Zendoia, Katxiña jatetxeko parrilleroa, Diario Vasco, ekainaren 7an.

“Ez dut helburu jakinik gabe hitz egiten, ez naiz igarlea, ez ditut kartak botatzen, nik egiten ditudan ikerketa guztiek oinarri eta ikuspegi zientifikoa dute”

Gregorio Lozano, astrologoa, Diario Vasco, ekainaren 17an.

» ZORIONAK!

KARKARAKO dinosaurioei

Erredakzioan nabaritu genuen aldaketa zeterrela. Horrenbeste urte lanean jardun eta gero, erretiroa hartzeko gogoa zutela. Baina guztiek batera utziko zutenik, nork espero?

Erreleboa eman dute, eta laster aurkeztuko dugu talde berria; baina, bitartean, azken zenbakiraino, sekulako

lana egin dute taldeko *dinosaurioek*. Ana Gonzalez de Txabarri zuzendari eta haren jiran, Pat Cowie, Miren Etxeberria eta Jabier Zabaleta. Nekaezinak ziruditen, eta hala dira, baina aldaketa ikusteko gogoia daukate.

Zorionak lauei urte guzti hauetan egin duzuen lanagatik, erredakzioan aritu garenoi irakatsi diguzuen guztia-gatik eta Aia eta Orio bezalako herriei eman diezuen bizitasunagatik. Ez da makala 23 urtean egin duzuen lana!

PERTS ANAK
AKO MAZ
Iluminazio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel: 943 829 11 Mugikorra 600 75 52 27

Nahikari
HABER DENDA
Arantzak Kalea, 35
28200 - C/da
Tel: 943 83 36 30
www.nahikari.es

Ramiro
argazkiak
610 697 668
943 831 048
www.fotoramiro.com

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta emertuntak
Tel: uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

Zaragueta Eskola Orio
tele/fax: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hazkuntza.net

tel/fax: 943 89 00 69
Bilbo eta 4 - 28.60 ZARAUZ
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BALNU ERAKUSKETA

“Ikuskizun berrian inoiz baino gehiago interpretatu behar izan dugu”

Maitane Mujika

Dantzaria

Soinu gutxi nahikoa omen da dantzari onarentzat, eta Maitane Mujika dantzariak, Haatik taldean, musika bertsoekin ordezkatu du *Errimak oinetan* ikuskizun berrian. Dantzara eginik dauden oinak, ezin dira gelditu, eta hala segi nahi du aurrera gelditu ere egin gabe.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Musika eskolan, 13 urterekin hasi zen dantzan Maitane Mujika. Eli Alberdi zuen irakasle eta 3-4 urtez Orion ibili ondoren, Elik Aukeran taldera bideratu zuen. Orain dela gutxi, Aukeraren ibilitako bost lagunek Haatik taldea sortu dute eta lehen ikuskizuna, *Errimak oinetan*, estreinatu berri dute.

Nolako proiektua da *Errimak oinetan*?

Iazko otsailean hasi ginen taldea sortzen, eta ez genekien zeri heldu, zer gai hartu. Unai Elizasu gai jartzaileak bi taldekideri proposatu zien bertso saio baten inguruko dantza saioa egitea.

Ikuskizunak bertso saio baten egitura du, baina taula gainean bertsolariak egon beharrean, dantzariak gaude bertsolarien paperean. Aurkezle bat egongo da, *off* ahotsan, eta dantzariok aurkeztuko gaitu bertsolariak bagina bezala. Esaterako, agurra eskatu eta bakoitzak gure agurra dantzatuko dugu, eta gero ofizioka edo bakarka, puntuka... Dantza edo bertsoa gustuko dituztenentzako modukoa da.

Bertsoak nork abesten ditu?

Aurrez eginda zeuden bertso batzuk hartu ditugu: Jon eta Aitor Sarasuarenak, Katamalak abesten dituenak, Gu ta gutarrakenak, Maialen Arzallus eta Miren Amurizarenak... Beste batzuk, ordea, propio egin ditu guretzat Sustrai Colinak.

Zer dantza mota egiten duzue?

Euskal dantzetan oinarrituta dago, gu beti euskal dantzetan aritu garelako; baina dantza garaikidea ere sartu dugu, lantzen ari garen adar bat da-eta. Ikuskizunak badu berezitasun bat: orain arte gai baten inguruan aritu izan gara, baina orain gai asko daude eta bertso bakoitzarekin mezu bat ematen dugu. Guretzat zaila izan da biaklotzea, mezuari eman



KARKARA

beharreko garrantzia dantzan islatzea. Batzuetan hitzez hitz landu dugu, beste batzuetan esaldika eta, orain arte ez bezala, ikuskizun honetan gehiago interpretatu behar izan dugu.

Jada egin dituzue saio batzuk, ezta?

Aurre-estreinaldia egin genuen gertukoentzat, guk ongi pasatu arren, bage-nuelako beldur txiki bat ikusleek nola erantzun zuten. Orain arte jende gehiago egon gara taula gainean, eta ikuskizun honetan bost gara bakarrik. Gainera, ordubeteko saioan denbora guztian jendaurrean gaude eta, beste ikuskizunetan, nork bere zatia egin eta gorde egiten ginen, berriz atera aurretik. Urduriago egon nintzen aurre-estreinaldian Leioako lehen saioan baino. 15, 50, 100 saio egin arren urduri beti egoten naiz, baina saio hartan, beldurrak, gogorak, urduritasunak, denek bat egin zuten. Ondarroan ere izan gara, eta uztailean Ilean Azpeitian izango gara.

“Zaila izan da bertsoa eta dantza lotzea, mezuari eman beharreko garrantzia dantzan islatzea. Batzutan hitzez hitz landu ditugu ideiak”

“Viktoria Eugenia zoragarria izan da eta Orion dantzatzean, pila bat gozatu izan dut, izugarria da sentsazioa; halako bost da emozioa”

Dantzan ibilbide luzea egin duzu.

Aukeran taldean urte asko egin nituen eta, uztekotan nintzen arren, proiektu berriak jarraitzea animatu nau, dantza uzteak pena emango lidake. Dantza nire bizitzako parte handi bat. Leku asko eza-gutzeko aukera ere eman dit: Espainia-ko txoko asko, Frantzia ere bai eta Filipinetara ere iritsi ginen.

Bereziki hunkitu zaituen tokirik?

Viktoria Eugenia zoragarria izan da, eta Orion dantzatzean, pila bat gozatu izan dut, izugarria da sentsazioa; halako bost da emozioa.

Orion zer maila ikusten duzu?

Harribileen azken ikuskizunean izan nintzen, eta izugarri gustatu zitzaidan; sekulako lana egiten dutela uste dut, baita Ander Errastik ere umeekin irakasle jardutean. Orion zaletasuna eta etorkizuna badaudela pentsatzen dut.

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokatzeko

- Neska, pisukide bila, Orion alokairuko etxebizitza partekatzeko. Tf.: 688639156.
- Garajea alokatzeko Arrantzale kalean, Ambulatorio parean. Tf.: 697786482.
- Orion Goiko Kalean etxebizitza alokatzeko, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea aukeran. Tf.: 660670536 (Naroa) edo 699716253 (Lurdes).
- Aita Lertxundi, 21ean 3 logela eta garajedun etxebizitza alokatzeko. Tf.: 609917399.
- Orio erdian 3 logelako etxebizitza dut alokatzeko. Amaia. Tf.: 608164971.

Lan eskaera

- Bi neska oriotar ardura-tsu udan haurrak zaintzeko edo enkarguak egiteko prest. Tf.: 650455350.
- Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziekin adinekoak zaintzeko prest. Ordenagailuak ere konpontzen ditut. Tf.: 659810396 (Danil).
- Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziekin adinekoak zaintzeko. Tf.: 669705724 (Angel).
- Emakume batek adinekoak zainduko lituzke. Ahal bada barneko beza-la. Tf.: 674413970 (Jojita) eta 620778480 (Rosario).
- Neska haurrak edo adinekoak zaindu, eta garbiketarako egiteko prest, barneko edo kanpoko bezala.

Esperientzia eta erreferentziak ditut.

Tf.: 680788599 eta 943831128.

■ Astebukaeretan edadekoak zaindu edo bainatzeko prest. Tf.: 664834388.

■ Edadetuak edo umeak zaintzeko prest. Orduka, etxean edo kanpoan bizitzen. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tf.: 630850167.

■ Neska euskaldun esperientziaduna umeak eta edadetuak arratsaldean zaintzeko prest. Tf.: 609807151.

■ Bi neska prest, edadetuak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Tf.: 699184832.

» ITSASOIA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
22	06:57 eta 19:12	00:47 eta 12:56	☀
23	07:34 eta 19:49	01:24 eta 13:34	☀
24	08:14 eta 20:30	02:04 eta 14:15	☀
25	08:57 eta 21:17	02:48 eta 15:01	☀
26	09:48 eta 22:11	03:37 eta 15:54	☀
27	10:47 eta 23:15	04:33 eta 16:55	☀
28	11:55 eta ____	05:36 eta 18:04	☀
29	00:27 eta 13:07	06:44 eta 19:16	☀
30	01:40 eta 14:16	07:50 eta 20:24	☀
01	02:48 eta 15:17	08:52 eta 21:25	☀
02	03:47 eta 16:12	09:48 eta 22:21	☀
03	04:41 eta 17:03	10:40 eta 23:12	☀
04	05:31 eta 17:50	11:28 eta ____	☀
05	06:18 eta 18:36	00:00 eta 12:14	☀
06	07:03 eta 19:21	00:46 eta 12:59	☀

» ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA

- 22an, Mutiozabal.
 - 23 eta 24an, Iriarte.
 - 25ean, Zulaika.
 - 26 eta 27an, Etxeberria.
 - 28an, Mutiozabal.
 - 29an, Etxeberria.
 - 30ean, Gallo.
- UZTAILA
- 1ean, Gallo.
 - 2an, Iriarte.
 - 3an, Larrañaga.
 - 4an, Mutiozabal.
 - 5ean, Etxeberria.
- Gauetako zaintzako botika:
Zulaika

- **Azaldegi:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- **G. Artífano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

RESTAURANTE **Galerna**
943 890416

San Pedro-tako Menua

**Bakailao entsalada epela piper mixarekin
edo
Etxeko frijitu ezberdinak**

**Foie eta honddoez beteriko hoztorea ,zigala saltsaz
edo
Ganboi Austral freskoa Armagnac ikutuarekin**

**Zapoa erreta, limoizko olio erre tradizionalarekin
edo
Idi azpizuna zainzuri basati eta Oporto saltsarekin**

**Sorbetea
edo
Maskarpone eta kafezko tarta**

Edaria eta kafea

35€+beza

Intzan/k erreserba derrepentente!!!

baserritik.com: lehen sektorea indartzeko apustu ausarta

Agurtzane Subijana

baserritik.com elkarteko presidentea



Lehen sektoreak behar duen bultzada emateko, ekoizleak batu eta baserritik.com proiektua sortu dute. Agurtzane Subijana lehendakariak eta *Ezkurtxerri* hestekien ekoizleak eman digu proiektu berritzailearen inguruko informazioa.

Nork osatzen duzue baserritik.com?

baserritik.com 2011ko azken hiruhilekoan sortu zen proiektua da.

Baserritar guztientzako konponbidea izan nahi du *baserritik.com*-ek. Gure egitasmoa baserritar askoren elkarlana bultzatzea da; horretarako, denon jarduna eta indarrak batu ditugu, enpresa bakar bezala jokatzuz. Hala, aukera zabala eskainiz, talde indartsua gara.

Gure helburu nagusia egoera kritikoa dagoen lehen sektorea bultzatzea eta suspertzea da. Horretarako, azken kontsumitzaileenganako zuzeneko salmenta lantzea dugu helburu, gure egoeraren berri eman eta garaian garaiko eta bertako produktuak kontsumitzeak dituen alde onak azaltzea.

Proiektu honen bidez, azoka birtual bat egin dugu, Zarauzko azokan dugun dendaz aparte. Horrela kontsumitzaileek baserritarren eskutik -bitartekaririk gabe- jasotzen dituzte produktuak etxetan. *baserritik.com-en* baserritar edo ekoizle ugari daude; horrela, kontsumitzaileei ahalik eta produktu aukera zabala eskaintzen diegu; zenbat eta baserritar gehiago elkartu, indar handiagoa egitea lortuko dugu.

Gure proiektuak ingurunea zainduz lana sortu nahi duenez, jendeak bertako produktuak kontsumitzeko kontzientziaztea ezinbestekoa da.



BASERRITIK.COM

Zergatik sortu zen?

Sektorea indartzeko asmoaz gain, kontsumitzaileen artean baserritarren eskutik produktuak erosteko dagoen eskaera izan da proiektua aurrera eramatera bultzatu gaituena. Gero eta baserritar gutxiago joaten da merkatu plazetara bere produktuak saltzera, eta horrek eskaera ere jaistea ekarri du.

Zein dira zuen konpromisoak?

Lehen sektorea indartzea, produktu freskoak eta kalitatezkoak eskaintzea, bertako produktuak erostearen abantailaz kontzientziaztea, salmenta zuzena bultzatzea, gure eskualdean ekoizten diren produktuez informatzea eta kontsumitzera bultzatzea, lanpostuak sortzea, azokak indartzea eta gaztetxoei gure produktuak nondik datozen erakustea. Horiek guztiak dira gure konpromisoak.

Eta zer motatako produktuak saltzen dituzue?

Lehen sektorean ekoizten diren produktuak. Adibidez: barazkiak eta frutak, gaztak eta hestekiak, edariak, arrautzak eta esnekiak, haragia, ogia eta gozoak, kontserbak eta gozagarriak, lekak eta fruitu lehorrak...

Norentzat dira?

Gure bezero nagusiak partikularrak, jabetxeak eta ikastetxeetako jangelak dira. Hau da, lehen sektoreko produktuez hornitu nahi dutenak.

Bezero guztiei produkturik freskoenak, bildu berriak eta guztiz naturalak eskaintzen dizkiegu. Gainera, zuzenean ekoizleei erositako produktuak dira; hau da, bitartekaririk gabe iristen dira kontsumitzaileengana. Nahi izanez gero, bezeroarenganaino eramaten ditugu, gainera 30 eurotik gorako erosketetan doan bidaltzen diegu. *baserritik.com-en* dugun produktu aukera zabala dela eta, asteko erosketa guztiak gure webgunean egiteko aukera ere ematen dugu.



19. LITERATUR LEHIAKETA

orioraia

- 1** 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketaren helburua idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2** Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3** Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ozta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakorik.
- 4** Lehiaketan parte hartzeko, oriotarra edo aiarra izan behar da edo, bestela, Orion edo Aian bizi, eta 16 urte beteta izan behar dira.
- 5** Lanen luzera librea izango da.
- 6** Epaimahaiak gaiaren gertutasuna baloratuko du.
- 7** Lehiaketak bi atal izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8** Gaia librea izango da.
- 9** Lanak aurkezteko era:
Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon alpatu. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, barruan egilearen datuak jasoko dituen eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.
Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbide elektronikoa eta telefonoa.
- 10** Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso atal bakoitzean.
- 11** Sariak hauek izango dira:
Ipuinen atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
Bertso edo olerkien atala
1. saria: 300 euro
2. saria: 200 euro
3. saria: 150 euro
Bi accessit, bakoitza 100 eurokoa
- 12** Epaimahaia. Epaimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek eta KARKARA aldizkari kide batek osatuko dute.
Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.
- 13** Lanak aurkezteko tokia eta epea.
Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxean aurkeztuko dira.
2012ko irailaren 28a izango da horretarako azken eguna.
- 14** Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari.

